

# Karkara

*karkara.eus*

**K** Orioko eta Aiako aldizkaria · 2016ko abenduaren 23a · 379 zenbakia. 26. urtea



## Taupadak kolpe direnean

Indarkeria matxistaren biktima da Ainara Castro Larrañaga. Ezabatu ezin den orbaina eta sendatu ezin den zauria utzi dizkio bizitakoak.

**11**

**Akuilua hartuta**  
Ion Lertxundi

**12**

**Erreportajea**  
Aiako garraio publikoa

**25**

**Erreportajea**  
Maria Auxiliadora II

**34**

**Udalaren Txokoa**  
Fiskalizazio txostena

ARRAINDEGIA

Astelehenetik Larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

**Kostera**

Arraiak

zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580

**cambo**  KIDS • STORE

JANTZIAK • JOSTAILUAK • OSAGARRIAK

Nagusia 4 - ZARAUTZ - 943 086 849

www.cambo.es @camboarraindegia

0-12 URTE

ESKERRIK ASKO GUZTIOI

Izarra Bideoa

Urte Berri On!



**NIKO NOK**

nikonok.blogspot.com

telf.; 677 525 883

pailazo

ikuskizunak

**OPARITU HISTORIA ETA ISTORIAK**

**GABONETAN OPARITU KARKARA**

36€ URTEAN

Izena:

Abizenak:

Nortasun agiria:

Helbidea:

Telefonia:

Eposta:

Kontu zenbakia:

379

# Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27

karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**

Karkara taldea  
kultur elkartea

**Erredaktore burua**  
Miriam Garcia

**Erredakzio taldea**

Jon Agirresarobe  
Onintza Aiestaran  
Olatz Artola  
Iñigo Exposito  
Jon Garate  
Elizabete Manterola  
Intza Unanue  
Rikardo Uzkudun

**Publizitatea**

Sonia Albizu

**Ale honetako kolaboratzaileak**

Leire Beldarrain  
Olatz Beldarrain  
Egoitz Dorronsoro  
Egoitz Eizagirre  
Iñaki Iturain  
Ion Lertxundi  
Unai Manterola  
Jexux Mari Perona

**Diseinua**

Saioa Perona

**Banatzaileak**

Ibon Berasaluze,  
iñigo Fernandez (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berrieman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

## PUNTUA JARRITA

**EGOITZ EIZAGIRRE** (DOINUA: ESPAINIAN BEHERA)

**Hemen dira oporrak Gabonetakoak,**

familian biltzeko onenetakoak. Ez dira berdin etxe guztietakoak, umeak jolasean dabiltzaneakoak, edo aulki hutsak dituenekoak.

Etxe, ume, aulki huts... aipatu (e)ta kasi, gogoa urrutira joaten zait ihesi. Preso guztiengana, nahiz hiru bereizi. Gregorio animo eta gogor eutsi! Eta mila zorion Olatz eta Patxi.



**Hurrengoari puntua: Gabonetako klasiko bat da selekzioa jokatzeko**

Publizitatea kontratazeko:  
**Karkara**  
688 859 682 (Sonia)  
publizitatea@karkara.com



karkara.eus



**LAGUNTZAILEAK**



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

## Orioko EAJk babesa eman dio alkateari

Azaroaren 29an ohiko udalbatza izan zen Orioko Udalean, bertan EAJren udal taldeko zinegotziek babesa eman nahi izan zioten alkateari, komunikabideetan honen aurka egindako adierazpen batzuen harira. Orioko EAJ osatzen dugunok, bat egiten dugu udal taldearekin zera adieraztean:

- Orioko EAJ udal talde, alkatea buru dela, legealdi honetan hainbat eta hainbat gai atera dituela aurrera.

- Hauek guztiak aurrera eramateko udal talde guztiaren lana dagoela atzetik, eta lan horren ondorioz Orioko herriari onura ekarriko dien hainbat ekimen martxan jartzen direla alkatearen eskutik.

- Gaiak aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izaten dela beste udal taldeekin hitz egin eta adostasunak bilatzea. Denok nahi dugu onena gure herriarentzat eta orain artekoak argi utzi du guztiok gaudela eztabaida eta akordioetarako prest. Ahalik eta adostasun maila handiena lortzea da Orioko EAJren asmoa.

- Orioko EAJk argi du egunerokoan hobetu daitezkeen elementuak egon badaudela eta horretan dihardutela udal taldeko kideek egunero. Gure herriak merezi du eta gure onena ematea.

Adierazpenak hitzetan soilik gelditzearen arriskua dute, baina astearteko udalbatzak egindako adierazpenak

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

errealitatean oinarri sendoa dutela nabarmendu nahi du Orioko EAJk. Izan ere, pleno horretan bertan, hainbat proiektu aurrera eramatearen aldeko akordio garrantzitsuak eman ziren. Herriari eta herritarrei onura ekarriko dioten hainbat inbertsio burutzea adostu zen. Arozenako aparkalekuen handitzea, Itsaspeko malda konpontzea segurtasuna bermatuz, Etxeluzean ere segurtasuna eta egoera osasungarria bermatuko duten egokitzapena, Mutiozabal ontziola eusteko mantentze lanak egitea adostu ziren besteak beste.

Bide batez, komeni da mahai gainean jartzea, gure herrian bizi diren per-

tsonen bizi-kalitatea hobetzea helburu dugunean, alderdikeriak eta pertsonalismoak albo batera utzi behar direla. Komunean dugun helburu honi ez diote batere onik egiten norbanakoen desprestigio hutsa bilatzen duten adierazpenek. Honek ez dio ezer onik ekarriko herriari, agian alderdi batzuei bai, baina Oriori ez, eta hori da gu gehien kezkatzen gaituena. ■ Orioko EAJ

## Gabon eguneko elkartasun tonbola

Aurten ere, urtero bezala, Orioko ikastolako DBH4ko ikasleok antolatutako Elkartasun Tonbola ospatuko da Gabon egunean. Duela zenbait urte hasi ginen hau antolatzen, eta jendeak harriera bikaina egin izan dio tonbola honi.

Tonbola honetan eskuragarri egoten diren sariak Orion dendaz denda pasa eta bertakoek borondatez emandako opariekin lortzen ditugu. Aurten ere Orioko komertzioei laguntza eskatu diegu eta beraien eskuzabaltasuna esker antolatu ahal izan dugu tonbola.

Tonbolaren bidez lortutako irabaziaz, bi zatitan banatzen ditugu: irabazien erdia, martxoan egingo dugun kurtso amaierako bidaia finantzatu ahal izateko, eta beste erdia, berriz, Rwandako eskola batera bidaltzen dugu, bertan ezinbestekoa duten materiala erosi ahal izateko. Horregatik deitzen zaio Elkartasun Tonbola.



# sinergia

FISIOTERAPIA  
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA    WWW.SINERGIA-WEB.COM  
TF.: 943 130 577    685 718 595

**LESIOAK:** BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAIINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

**TRATAMENDUAK:** TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

**OREKA FISIOTERAPIA**

Tendinitisak  
Lumbalgia  
Artrosia  
Zefaleak

Masaje terapeutikoa,  
benetosak, akupuntura,  
eskuko terapia,  
osteopatia

943 13 35 37

Arintza kalea, 11. Aterea



**ASADOR XIXARIO**

Ereiko Gaiaren Kalea, 2  
Tel.: 943 100 019 - 0910



## Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50  
sagasti@sagastileihok.com  
Arrantzale kalea, 65  
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Besterik gabe, gure eskerrik beroenak urtero hau guztia aurrera eramaten laguntzen diguzuen komertzio eta gainerako guztiei. ■ **Orioko Herri Ikastolako DBH4ko ikasleak**

## Orioko Plan Orokorra, non gaude?

Norabiderik gabe eta geldirik dagoen udalak nekez egin dezake aurrera; gehiago esango genuke: geldirik egoteak atzeraka eramaten gaitu. Horixe da Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren idazketa-lanak bizi duen geldialdiaren ondorioz gertatzen ari dena.

Etorkizunean noraino hazi behar du Oriok? Zer egin hiriguneko eremu degradatuetan? Zein izango dira gure ekonomiaren zutabeak? Azpiegiturak direla-eta zer behar aurreikusten ditugu? Eta ingurumenari dagokionez? Galdera horiei guztiei proposamen zehatzekin erantzun behar lioke Plan Orokorra. Gure ekonomia eta gizartea bizi-bizi ari da aldatzen eta, aldaketari egoki erantzuteko, ezinbestekoa

zaigu Plan Orokor eguneratu bat.

Erronka horiei erantzun ahal izateko, EH Bilduren gobernuak Plan Orokorren idazketa-lanak hastea erabaki zuen aurreko agintaldian, 2013ko azaroaren 8an. Ondoren, 2014ko ekainaren 25ean, herritarren parte-hartze programa onartu zen eta 2014ko abenduaren 23an, Planaren aurrerapena. 2015ean, berriz, Plan Orokorren zehaztapenak herri osoari zabaldu zitzaizkion, foileto batzuen bidez, eta herritarrekin partekatze bidea jarri zen lau saio irekitan. Helburua zen gaia guztion artean lantzea eta adostasun zabal lortzea, gure etorkizuna bultzatzeko tresna eskuartean izateko.

Ondoren, udal hauteskundeak eta gobernu aldaketa etorri ziren. EAJk bere gain hartu zituen ardura guztiak, eta zer egin dute geroztik? Ezer-ezer ez, edo ezer gutxi.

2015eko maiatzetik herritarrek idatzitako iradokizunek ez dute oraindik inolako erantzunik jaso, eta 2015eko azarotik urtebete pasa dugu bilera bat bera ere egin gabe. Esan de-

zakegu duela 18 hilabete bezala gaude, inolako aurrerapausorik eman gabe.

Arduragabekeria? Seriotasun falta? Horretan ez dugu inolako zalantzarik; baina, gure ustez, jarrera horren atzetik badago ezkutuko arrazoi bat: Orioko EAJk herritar guztien interesen gainetik zenbaiten interes partikularrak babestu nahi ditu eta hori behar bezala lotu arte ez du ezer mugitzeko asmo edo interesik.

Triste da, baina prozesu guztia gelditzeari ez diogu beste arrazoirik ikusten. ■ **Orioko EH Bildu**

## Akatsak zuzentzen

Aurreko papereko Karkaran, 378. zenbakian, Maria Auxiliadoraren erreportajeko lehen zatian, bost mutil agertzen diren argazki-oinean oker bat dago:

Mutikoetako bat Jose Mari Arruti zela jartzen zuen eta ez da horrela, Luis Mujika *Itxaspe* da.

■ **KARKARAKO erredakzioa**

## EZKONDUTAKOAK

■ Joseba Arrojeria Elorza eta Jaione Arana Iturrioz, Orion, urriaren 7an

## HILDAKOAK

- Manuel Urkizu Etxaleku. Orion, azaroaren 27an. 90 urte.
- Rosa Eizagirre Ezeiza. Orion, abenduaren 5ean. 60 urte.
- Valentin Manzisidor Agirresarobe. Orion, abenduaren 9an. 76 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
**943 83 15 27**



Gure Esku Dagok denda eta haurrentzako tailerra jarri zuten plazan.



Esperientzia Eskolakoak taloak egiten aritu ziren plazan.



Jendetza bildu zen Ibai Esoainen Bertsolharitza emanaldian.

# Jaietan hasi, jaiian buka

“Herritarrak izan dira festa hauetan protagonista, izan oholza gainean ala eszenatokitik kanpo”

**E**gin ditu lehen elur malutak. Orio eta Aia zuritu ez diren arren, egunkarietako azalak, albistegietako lehen minutuak eta hedabideetako lerroburuak hartu zituzten lehen elur malutek. Eta mendi tontorretan elurra mara-mara aritu ostean hasi ziren sanikolasak Orion, baina orduan ireki zituzten ere atea eski-estazioek. Festekin batera hasi zen eski denboraldia. Ondorioz, herriko festak herritik kanpora joateko aitzakia gisa erabiliko zituzten askok, maldan gora teleaulkian igo eta behera elurretan arrastaka jaisteko. Ez soilik eskiatzera, herritik bestelako paraje berrien bila beste hainbeste joango ziren.

Baina beste asko eta asko kanpotik Oriora etorri dira. Aurpegi ezezagun ugari ikusi ditugu egunean zehar festetan murgilduta edo gautxorien gisan ordu txikitik dantzan. Oholtzara ere igo dira kanpotik etorritako hainbat musikari nahiz dantzari; baina herritarrak izan dira festa hauetan protagonista, izan oholza gainean ala eszenariotik kanpo.

Zerrenda luzea da: Pello eta Nikolasaren azpian ezkutatzen ziren herritarrak, buruhandien pean gordetzen zirenak, Danbolin Musika eskolakoak, Harribil dantza taldekoak, Pilota elkartekoak, Salatxo abesbatzakoak, Errikotxia bertso eskolakoak, Gure Esku Dagoko Baliza elkartekoak, Ibai Esoain, Ibai Marin, Why Not? taldekoak, DJ Gurru, D Illarras eta Mikel Manterola, ttuntturroekin kalejiran ibilitakoak, jubilatuek, esperientzia eskolakoak, ZAST saskibaloikoak, Etxeluzeko gazteak, Ostolaza eskolakoak...

Orain Gabonak datoz+ atejoka. Askok joango dira berriz ere Oriotik kanpora, izan oporretara edo familiarekin mahai bueltan festak ospatzera; beste asko herrian geldituko dira; eta beste horrenbeste kanpotik senide oriotarregana etorriko dira. Modu batean ala bestean, bapojan eta ondo izan!

# Nola moldatzen zarete Gabonetako ekintzak antolatzeko?



“Mari Domingi lehenago etortzen da bisitan”

**E**skolak gustura antolatzen du Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera, ikasleengan pizten duen ilusioaz jabetuta. Mari Domingi lehenago etortzen da bisitan Haur Hezkuntzakoengana eta abenduko azken eskola egunean ikasle zaharrenek Etxetxorainoko bidean lagunduko diete asto-gurdiz datozen Olentzero eta Mari Domingiri. Eskola guztia zain izango dute kantuz hartzeko. Handik plazara, zimitorioko eskaileretan eserita, Olentzerok haur guztien eskutitzak jasoko ditu. Txokolate-jana ere izaten da, guraso elkarteak eskainita. Eskolako irakasleaz gain, hainbat guraso eta lagun ere ibiltzen dira antolatzen, brigadako langileekin batera.

Eva Tousido



“Parte-hartze aktiboa sustatzen saiatzen gara”

**P**arte-hartze aktiboa sustatzen saiatzen gara nerabeengan. Aian beti egon izan da ekitaldiak antolatzen dituen guraso elkarteak. Horietako batzuetan parte hartzen du gaztelekuak. 24an, adibidez, baserriz baserri joaten gara eskean berekin.

Beste alde batetik, guk ere atolatzen ditugu gauzak. Zinema jartzen dugu, adibidez; aurten lau film jarriko ditugu. Gaztelekuko nahiak betetzen ere saiatzen gara, aurreko hilean bildu ginen gaztetxoekin eta beren proposamenak entzun genituen: postre lehia-keta, txuri-urdinera irteera, Euskal Selekzioaren partida ikustera irteera eta futbol txapelketa antolatu ditugu aurrean.

Eneko Sanz Goikoetxea




“Hunkitu egiten gara umeen aurpegiak ikusita”

**G**abonak gertu direnean bilera egiten dugu ekintzatan parte hartzen dugunok. Aurreko urtean egindakoen erreposoa egiten dugu lehenbizi, zer egin zen ondo eta zer gaizki, eta hobekuntzak proposatzen ditugu. Gero, datozen ekintzeta-rako ardurak banatzen ditugu: Arro-pak, bizar zuri, erregeak, danborrada, entseguak, baimena, zaldi eta astoak... lan handia eskatzen du. Urtez urte antolatzeak eskarmentua ematen digu eta badugu martxa bat.

Urtero gauza bera ikusten dugu, baina beti hunkitzen gara umeak ikustean. Aurpegietan antzematen zaie ilusioa, eta ahaztu egiten zaigu egin dugun lan guztia.

Mari Carmen Oleden Mancisidor



Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak; etxe-ko jan ohiturak; baratza, ibaia eta itsasoa; jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Gizaki lurtar guztiek bi aldiz jateko adina janari sortzen dugu, baina animaliak gizentzera bideratzen dugu”

**Iñigo Perona Balda**  
**Babarrun zuria barazkiekin**



**Osagaiak**

Bi katilukada baba zuri, bi tipula buru, porru bat, bi azenario, baratxuria, piper berde bat, lau goilarakada tomate egina, goilarakada txiki bat piper hauts gozoa, piper beltz hautsa, oliba olio eta gatza.

**Gomendatutako edaria**

Oria ibarreko ura, iturburu garbikoa.

**Nola egin?**

Babak beratzen utzi bezperatik. Ur zaharra bota eta ale txarrak kendu. Heltzean jarri baba eta ur berria, ura hiru behatz gehiago. Irakin bost bat minutuz, aparra kenduz. Barazkiak heltzera gehitu eta irakin txikian utzi. Gehiegizko salda kendu, babak eta ura berdindu arte.

Aparte, barazkiak potxatu. Ondoren piper hautsak gehitu, beltza eta gozoa. Gatza gehitu eta guztia nahasi. Hogei minutuz utzi zapo-reak ondo nahastu daitezen.

**JON AGIRRESAROBÉ**

Txikiak dira esaldiak printzipio handientzat. Asko ikasi dugu Iñigorekin. Ikerketak dira bere iturri, irakurtzetik abiatu du eguneroko borroka eta datuekin argudiatzen du. Iñigoren zat beganismoa ez da dieta bat, ez da bizitza estiloa, borroka da. Garbi du: *Nik ez dut larrurik jantziko, ez naiz Aquarium batera sartuko. Nahi dut zuek ere dieta aldatzea, baina bada- kit bakoitzak bere denbora behar duela.*

**2015. urtea hastearekin erabaki zenuen begano egitea.**

Elikadura osasuntsurako pautak ikertzen interesatu nintzen beganismoan. Hasieran, ez zitzaidan begano izatea burutik pasa; konturatzerako kontzientziatu egin nintzen.

**Arrazoi asko daukazazu. Lehen arrazoiak etikoak: animaliei eragiten diegun sufrimenduaren aurka zaude.**

Animaliek sufritu eta plazerra sentitzen dute, guk bezelaxe. Beharrik gabe gizakiok sufrimendua eragiten diegu, posible delako animaliarik jan gabe bizitzea. Demostratu da dieta begano orekatu batekin ez zaizula ezer faltako, dieta erakunde nagusiek hori diote. Ikuskeran hau lotuta dago beste borrokek: genero berditasunarekin, herri zapalduen eskubideekin, hizkuntzaren biziberritzearekin... Nire botere lekutik, ahal dela, ez dut sufrimendurik eragin nahi, solidaritate eta berdintasun printzipioak aplikatuz.

**Beraz, egungo animalien explotazioa ez da beharrezko?**

Ez hori bakarrik, gure aurka etorriko da, ez baita jasagarria.

Ehun kalaria lortzeko energia gehiago behar da animalitan potajetan baino: hemezortzi aldiz zelai gehiago, hamairu aldiz ur gehiago, hamabi aldiz ongarrri gehiago, hamaika aldiz erregai fosil gehiago, hamar aldiz pestizida gehiago, besteak beste. Animalia industria energia xahuketa handia da. Esaterako, haragi ratio bat sortzeko behar den urarekin bi hilabetez dutxatuko naiz. Dutzan ur gutxi gastatzea beharrezkoa da, baina sakoneko erabakiak hartu behar dira.

**Datuak ematen hasita, behien puzkarrena handia da gero.**

Animalia industriak sortzen duen kutsadurak pisu handia du nire erabakian. Behien puzkarren metanoa CO2a baino lau- rogeita hamar aldiz suntsitzaileagoa da ozonoarentzat. Azken ikerketen arabera airera botatzen diren gas kutsagarrien %51 animalia industriatik dator. Egin kontu: munduko auto, hegazkin eta itsasontziek %13 kutsatzen dute. Pertsona bakoitzak bost tona kaka sortzen ditu zeharka, animalien ipurditik irteten direnak. Ongarritarako erabiltzen da kaka, baina ura kutsatzen du: iturri natural asko ez dira edangarri eta ozeanoetako gunek hilak ugaritzen ari dira.

**Jatearen arazoa konponduta mundua konponduko dugu.**

Europa mendebaldean eta Amerikan haragi asko jaten dugu. Asiako zenbait herritan begetarianoak dira kulturalki, oso haragi gutxi jaten dute. Txinan hemen bezainbeste haragi jango balute munduan ez litzateke denontzat adina lur eta ur egongo. Zibilizazioa ez al da elkarrekin leku berean bizitzeko





“Munduan airera botatzen diren gas kutsagarrien %51 animalia industriatik dator”

“Txinan hemen bezainbeste haragi jango balute, munduan ez litzateke denontzat adina lur eta ur egongo”

erabakiak adostea? Einsteinek, Teslak, Leonardo da Vincik aspaldi planteatu zuten arazo hau. Baina tradizioa aldatzea asko kostatzen da.

#### **Zein da zure dieta?**

Igandetan sukaldatzen dut, prozeduretan ere jartzen baitut begia. Gutxi-gorabahera hauxe da nire egunerokoa: etxean egindako humusa ogi gainean eta hiru bat fruta ale gosaltzen ditut, garaian garaikoa. Goiz erdian ezer jan gabe ondo irauten dut. Bazkaritan beti potajea eta arroz integrala, biak berdurekin. Postrean olo-aia. Afaritan berdura salda eta ensalada, germinatuak sartuta. Berdura egosiarekin amaitzen dut.

#### **Ez al zaizu iruditzen haragi gutxiago jaten dela?**

Datuek kontrakoa diote, kontsumoa handitzen ari dela. Animalitik bizi diren baserritarrei eta arrantzaleei beste negozio etiko batzuetara trantsizio-laguntza politiko bat idatzi eta aplikatu beharra dago. Langile klase diren aldetik babes osoa eta urgentea behar baitute.

#### **Euskal herrian haragizaleak gara, festari lotuta batik bat.**

Badirudi haragirik gabe ez dagoela festarik. Musikariok ondo dakigu hori. Gozategi taldearekin edo txarangetan astean behin jaten dut kanpoan. Hamaika ensalada kaxkar jandakoa naiz. Barazkiak lasai gehitzeko esaten diet.

Niretzat, haragia jatea krimen bat da. Iritsiko da eguna denok krimen gisa ikusiko duguna. Munduari kalte egiten ari gara eta geure buruari ere bai. Gizaki lurtar guztiei bi aldiz jaten emateko adina janari sortzen dugu baina gehiena animaliak gizentzera bideratzen dugu.

**BODEGAS**  
*Gailur*  
1900 BANCOS & EBRO  
Tel/Fax 943 83 11 38  
www.bodegagailur.com  
Anabar Ertokoa

**ZUDUGARAI**  
  
*Geliatxo Txakolina*  
Tel. 943 83 03 88  
Fax 943 83 58 32  
bakelozudugarai@txakolinat.net  
www.txakolozudugarai.com

**2GURPIL**



Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)  
 T 943 835 980    W www.2gurpil.com    E bigurpil@hotmail.com

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAK



**943 83 05 37 / 943 83 27 47**

**TAILER MEKANIKOA**

**AUTO LAN**



Pelotari 5, Orrio  
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko  
**Gertuko Tailerra**

**arkaitz taberna**  
ORIO

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin  
Siro ezin hobea

**abeslari kalea 6 - 943 831 657**

**libe**  
dietetika  
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO    943 53 64 94 - 697 23 86 56

**J. MAIZA B.L.**

**JON ANDER MAIZA AROZTEGIA**  
LEIHO ISOLATZAILEAK  
PVC - ALUMINIOA  
690 99 39 32 / 943 30 07 88  
ventanasmaiza@gmail.com  
www.carpinteriamaiza.com  
Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

**KAXAIO**  
PLADURRA ETA ESKAIOLA

Konponketa eta berrikuntza lanak  
pladurra eta eskaiolearekin

4josemaria@gmail.com  
**656 777 574**

**&XP**

ELEKTRIZITATEA  
Inder Ezpeleta  
943 831 774  
600 856 728  
anderexpolektrizitatea@gmail.com



gizarte

**kutxa**

**KOLON TXIKI**  
antzerki taldea  
jakea.com



Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

**ROSA**

GARBIÑE ARRILLAGA  
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43  
www.facebook.com/ROSAORRIO  
BIO+ DESKONTU FAMILIA UGARIENTZAT

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)



**KORTABERRI**  
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com    665 70 33 47

# Kexatu edo protestatu



Ion Lertxundi

**Pentsa dezagun kexatzen garen momentu batzuetan, benetan arduraz jokatu nahi ote dugun edo ez**



Antzeko hitzak dirudite eta erabili ere antzeko egiten ditugu, baina lagun batekin hitz egiten ari nintzela, bi hitz horien ezberdintasuna argitu zidan, gaur egunean asko gertatzen denaz hitz egitean.

Eta bai, askotan gertatzen denaz hasiko naiz. Egunero kexatzen gara edozein lekutan: tabernan, lantokiko egongelan kafea hartzen ari garenean, kalean... Eta gaia edozein izanda: politikariei buruz, laneko arduradunen inguruan eta zuzendariei buruz, kudeaketa publikoaren inguruan, futbolarien gainean... Baina, horrekin guztiarekin zerbait lortzen al dugu, gure barrenetik hitz jario soltea izateaz aparte? Eta askotan ezertarako balio handirik ez duen ariketa gertatzen da –beno bai, lasaitasunerako, *negar* pixka bat egin entzule eta *kexatzaile* daukazun lagunari, *zaletasun* berberean sartzen delako eta biek hutsaldi bat egiten dutelako–.

Baina ardurazko ariketa egingo bagenu, lantokiko arduradunari gure kezkan eta desadostasunak adieraziz, gure politikoei ere egonezinak helaraziz –udalekoak badira udal batzarretara joanez eta gure kezkek azalduz, bai idazkiak edota manifestazioak eginda ere beste aukerarik uzten ez dutenean–, orduan protestatu egingo genuke. Hori da alegia bi hitzen arteko berdintasun handiena nire ustez. Eta ez dut esan nahi protesta egiten ez denik, kexatzearekin alderatuz oso urruti gelditzen dela baizik.

Eta, aldi berean, ardura daramalako protestak berak, denok, beldurraz edota axolagabekeriaz, edo erosotasunez, errazenera jotzen dugu, kexatu bai baino behar den toki eta momentuan protestarik egin ez.

Beraz, pentsa dezagun kexatzen garen momentu batzuetan, benetan arduraz jokatu nahi ote dugun edo ez, eta besteei bakarrik ardura eman

nahi diegun edo gurea ere baden, eta zerbait zuzentze aldera lan egin nahi dugun –agian gure onerako ere izango da–.



Olatz Artola Apeztegia

## Geltokiak

**T**eguko hoztasunean ematen diren besarkada beroak. Bueltatuko ez denaren beldurrez ematen diren musuak. Itzulerarik ez duten agurrrak. Adiorik gabeko agurrrak, ezpainak ireki gabe agurtzen direnak. Agurtu nahi ez dutenaren agurrrak. Agurrrak.

Bueltan datorrenari ongietorria emateak sortzen duen tripa-zorria. Beso zabalik jasotzeko gogoia eta besoak zurrunki tinko izatearen beldurra. Minutu ugari irauten duten besarkada estuak eta luze egiten diren minutuak. Iritsi berriari egindako agur urduria. Araututako bi musu hotzak.

Agurrrak. Geltokiak.

Geltokiak dira agurren lekuko. Bukaera edo/eta hasiera bat, denboran nahiz espazioan kokatzen dituzte geltokiek. Eta hori izan dira niretzat Orio eta Aia, KARKARA, geltoki bat.

Gogoan ditut hasierak. Espazio-denboran kokatuta, 2014ko urtarrilaren 27a zen. Goizeko 9:00ak ziren eta kultur etxean elkartu ginen. Artxiboan zegoen orduko arduraduna, eta, nire antzera, hasiberria zen lankidea. Han hasi zen gaur arte iraun duen bidea. Bukaerak ere data bat baitu: 2016ko abenduaren 31a.

Eskertu ateak parez pare zabaldu dizkidaten oriotarrak eta aiarrak. Arraunzaletu nautenak. Kostaldeko kuadrillakoak. Eta, bereziki, bidelagun izan ditudan lankide –eta lagunak–.

Agur hau izan dadila sarritan bueltatzeko. Neguko hoztasunean ematen diren besarkada bero bana.



# Garraio publikoa Aian, eztabaidarako gaia

Mugikortasunaren gaia beti izaten da eztabaidagai herri txikietan, eta Aia ez da salbuespena. Zaila da **denen gustuko garraio publiko zerbitzua** ematea. Nolakoa da Aia Oriorekin eta Zarautzekin lotzen duen autobus zerbitzua?

TESTUA: M. GARCIA ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KARKARA

**M**ugikortasunaren kudeaketak buruhausteak ematen ditu herri txikietan. Arazo nagusia, askotan, herriaren ezaugarrietara egokitutako garraio publiko falta izaten da.

Horri irtenbidea emateko Landabus zerbitzua sortu zuten 2008an Aiako Udalak eta Foru Aldundiak. Eskari bidezko zerbitzua eta finkoa eskaintzen zituen proiektu pilotoa amaitzean, Aia, Orio eta Zarautz artean autobus zerbitzu iraunkorra jarri zen martxan. Hori da gaur egun dagoena.

### Gaur egungo zerbitzua

Aiako autobus zerbitzuak Oriorekin eta Zarautzekin lotzen du herria eta Lurraldebus da hori kudeatzen duena. Autobus bat ibiltzen da, egunero, hiru herrien artean eta Aiako hirigunetik ez ezik, auzo nagusietatik ere pasatzen da zerbitzua.

Astelehenetik ostiralera egunean hamar autobus irteten dira Zarautzik Aiara, eta horietatik zortzi Oriora jaisten dira gero. Oriotik Aiara zazpi autobus joaten dira egunean, eta Aiatik Zarautza bederatziz. Lehen autobusa 6:15ean irteten da Zarautzik, 6:35ean pasatzen da Aiatik eta 6:55ean iristen da Oriora. Azkena, 20:05ean irteten da Zarautzik. Oriotik, 7:00etan irteten da lehen autobusa eta 20 minutu pasatzen ditu Aiara iristeko; Zarautza, 7:45ean iristen da. Oriotik azken zerbitzua 21:00ean irteten da.

Asteburuetan zerbitzu kopurua jaitsi egiten da. Zarautz-Aia-Orio eta Orio-Aia-Zarautz ibilbidea egiten duten zazpina zerbitzu daude larunbatetan. Lehenengoa 7:55ean irteten da Zarautzik eta 8:50ean Oriotik, eta 8:15ean eta 9:10ean pasatzen dira Aiatik, hurrenez hurren. Azken zerbitzuak 22:15ean - Oriora - eta 23:10ean - Zarautza - pasatzen dira Aiatik.

Igandeetan, berriz, bost dira pasatzen diren autobusak ibilbide bakoitzean. 9:30ean eta 10:25ean pasatzen dira lehen autobusak Aiatik; Zarautzik eta Oriotik datozenak dira, hurrenez hurren. Azken zerbitzuak hauek dira: 20:15ean Oriora eta 21:10ean Aiara.

### Herritar talde baten eskaria

Herritar talde baten ustez, *urteak dira Aian arazoak daudela garraio publikoarekin*. Egunean zerbitzu gutxi egiten direla eta ibilbidea desegokia dela esaten du talde horrek.

Beren ustetan, zerbitzu horren desegokitasunak mugitze-ko beste aukera batzuk bilatzera bultzatzen ditu herritarrak. Horrela, auto eta moto gehiago daude etxe bakoitzean eta horrek gastu handia dakarrela diote.

Taldeak dioenez, hainbat kasutan Zarautzko bidea hartzeak ez du zentzu handirik, erabiltzaile gutxi dituelako. Izan ere, Aiako biztanleria gehiena kaskoan eta Andatza eta Santio auzoetan bizi da.

Salbuespenak salbuespen, autobusaren bidea Andatzatik izatea proposatzen du herritar talde horrek. Horrez gain, geldialdia Orioko tren geltokian izatea ere proposatzen dute.



“Aia, Zarautz eta Orio lotzen ditu gaur egungo autobus zerbitzuak”

“Egunean zerbitzu gutxi daudela eta ibilbidea ez dela egokia dio herritar talde batek”



*Horrela, erabiltzaileek tren hartzeko aukera izango lukete beste nonbait joateko.*

Eskola garaian, Orio-Aia-Zarautz eta Zarautz-Aia-Orio zerbitzuak mantentzea ere proposatzen dute, Orion eta Zarautzen ikasten duten aiarrek erabiltzeko. Azkenik, autobus gehiago pasatzea, hau da, maiztasun handiagoa eskatzen dute.

### **Udalaren lanketa**

Herritarren proposamenak jaso eta urtean zehar hainbat eskaera landu ditu Aiako Udalak. Eskariak aztertu eta irailean aldaketak martxan jarri zituzten.

Goizeko zerbitzua moldatu zuten batetik. Zarautza batxilergora joaten diren ikasleentzako ordutegia moldatzeaz gain, lanera joaten direnentzako ere zerbitzua jarri zen 8:05ean.

Bestalde, Zarautza jaisten diren autobusak beste garraioen ordutegiarekin bat egiten saiatu direla esan du Nekane Arrizabalaga Aiako alkateak, Gasteizera edo Bilbora doazenek ez dezaten denbora asko itxaron.

Eguneko lehen zerbitzuaren ordutegia ere aldatu zuten, trenaren ordutegiarekin bat egiteko, garraio aldaketa egin behar dutenentzat. *Lehen oso goiz irteten zen autobusa, eta erdi hutsik joaten zen*, dio Arrizabalagak.

Aia-Orio zerbitzua bakarrik ematea proposatzen zuten eskaerak ere baziren, baina gaia Lurraldearekin landu ondoren atzera botatzea erabaki zutela dio Arrizabalagak. Mugikortasun aldetik, Aiak puntu desberdinetara lotua egon behar duela uste dugu, eta lerro bat suntsitzea ez dugu bideragarria ikusten. Zarautzen ikasten dutenek, adibidez, garraio aldaketa egin beharko lukete zuzenean joan ordez.

Alkateak dioenez, *lanketa egin zen iraila aurretik, proposamen dezenteri egin zitzaaien kasu, lurraldearekin harremanetan jarri ginen, eta aurrera eramanez ez ziren eskariei erantzuna eman zitzaaien.*

“Herritarren proposamenak jaso eta hainbat eskaera landu ditu Aiako Udalak”

“Zarautzera doan zerbitzua mantentzea erabaki zuen Udalak, mugikortasun lerro bat suntsitzea bideragarria ez zelako”



Jesux Mari Perona

## Atxaga ez, Atxega

**Orioko herritarrek uste dute ni oker nagoela, baina adierazi nahi diet nire ahalegin apalean aztertu ditudala bai Orioko elizako bataio-partidak eta Udaleko errolda-zerrendak, baita balea arrantzatu zuteneko Udalaren akta-agiriak ere, eta Atxega behar du**

**N**ila bederatzirehun ta lehenengo urtian, maiatzaren hamalagarren egunian, Orioko herriko barraren aurrian, balea agertu zan beztzik aldian. Bost traineru joan ziran patroï banarekin, mutil bizkor bikainak guztiz onarekin, Manuel Olaizola eta Loidirekin, Uranga, Atxaga ta Manterolarekin.

Orioko azkeneko balea harrapatu zuten marinelei jarritako bertsoetan akats bat baino gehiago ageri da, eta azterketa sakon bat baino gehiago egin dute gai hauetan ni baino trebatuago direnek. Antonio Zabalaren Auspoa saileko Arrantzaleen bizitza liburuan ikus daiteke hori.

Niri bost patroietako baten abizenak sortzen dit kezka: Jose Eustaquio Atxega Martikorenaren lehenengo abizenak. Gizon hori nire urruneko senidea da, eta nik beti entzun izan diet guraso eta familiakoei haien aitona Jose Maria Martin Atxega Martikorena eta bere anaia Eustaquio izan zirela, beste hirurogei bat marinelekin batera, Orion 1901ean balea harrapatu zutenak.

Nahiz eta bertsoetan Atxaga abesten den, eta gaur arteraino ez diogun garrantzirik eman, uste dugu Atxegaren oinordekoe(o)k merezi dutela/dugula duintasunez, memoria historikoari onespina eginez, haien abizena Atxega dela aitortzea.

Orioko herritarrek usteko dute ni oker nagoela, baina adierazi nahi diet nire ahalegin apalean aztertu ditudala bai Orioko elizako bataio-partidak eta Udaleko errolda-zerrendak, baita balea arrantzatu zuteneko Udalaren akta-agiriak ere, eta gure Eustaquio denetan Atxega abizenarekin agertzen da.

Hortaz, zer dela eta jarri behar da Atxaga herriko horma, elkartetako adierazpen, Orioko historiaren liburu, arraun liburu, kantu eta bertsoetan? Gainera, ez Orion ez inguruetan ez da inoiz Atxaga abizena duenik izan.

Ez al diogu, ba, bakoitzari dagokiona aitortu behar? Garai bateko norbait erratu bazen ere, gaur egungo familiakoen nahia hori da, eta dokumentuetan datu argiak daude. Nork konpondu behar ditu gaur egun, garai batean erratu zenaren oker mardul horiek?

Atxega Eleizalde, Murguiondo Atxega, eta Urretabizkaia Atxega familietako oinordekook eskatu nahi diegu Orioko herritarrei, herriko alkate jaunari eta arduradunei, saia daitetzela Eustaquio Atxega eta haren senide Juana Francisca eta Jose Maria Martinena aintzat hartzen eta haien oroimena zaintzen, akats edo erru historiko potolo hori zuzenduz, haien benetako deitura, jarritz: Atxega. Eskerrik asko.

*Gertatua jarri dut egiaren alde, hau horrela ez bada familiarialgalde, bihotzez mindu eta saminduak gaude, gora Atxegatarrak esan beldur gabe.*

*Lizaso*  
dekorazioa



**Tf:**  
**943 83 07 84**

**Faxa:**  
**943 24 87 15**

**Eusko Gudari, 48**

**KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA** **GELATTO**



**943 578 176**  
Herriko enperantzan

**lzozki naturalak Opilak**

**PERTSIANAK**

A  
K  
O



M  
A  
N

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...

**Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27**

**MENDIZABAL**

**AROZTEGIA**

Nearriko arnairak  
eta egurrak

943 831 175      Alzami bideo  
645 708 491      Berr-Aizoi etxea  
mendizabalgia.net      20810 Aia-Orio

le apaindegia

**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

**Eusko Gudari, 8 - behea**  
**Tel. 943 13 47 29**  
**ORIO**

**ETXEKO BEREZITASUNAK**

**ARRAIN ZOPA**

**PARRILA**

**BODEGON SARASUA**



ERRETEGIA

**Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 03**

**IGLESIAS**

**SARRAILAGILEAK**




**24** ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández  
**637 723 308**  
iglesiascarrailagileak@yahoo.es  
**ZOBIO ORIO**

- ATYAK IRERITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATYAK IXTEKO MALDURIEN ALDAKETA
- KOMUNITATERENTZAKO ZERBITZUA

**ORIA**  
hortz klinika



Orio Hartz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jami du martxoan.

Prebentzio ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurrerakoiak sar daitezkeen arazoak.

Arantzale kalea, 63 behea  
20810 ORIO  
Tel.: 943 83 36 45

**BPXport**  
Teknifikazioa

**BPXport Teknifikazioa**



- Esfortzu frogar arnaita (laktato gabe) 80 €
- Esfortzu frogar arnaita (laktato neurketekin) 112 €

prestakuntza 49 €/hilero jarraipena eta gomendioak 49€ hilero

**Tel. 943894428**  
**2017ko ekitaldiko partaide guztientzat**

**LUXARBE**  
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

**Tfnous 943 83 59 00**

**ITZALA**

kartetan jokatzen ari gara

**tel. 943 83 12 59**

**Zaragueta**  
Herri Eskola **ORIO**



telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

**GARMENDIA**

PROIEKZIO AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1  
Tel. 943 834 466 - Fax: 943 132 941  
informacion@garmendiagestion.com

**HAIZE BERRI**  
lasterren-jatebidea-kafetegia

Plater konbinatuak, bokalak, horribuzak, rasoak, eguneko menua...

**eta etxera eramateko zerbitzua!**

**943 831 623**

Orioako Kaledegia, Eribero 1

**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: - 943 572 083  
FAX - 943 571 190  
Lasesjo@hotmail.es

INES ASEÑO  
ABESLARI, 1  
20810 ORIO





# “Ez da ahazten, baina horrekin bizitzen ikasten da”

## **Ainara Castro Larrañaga**

Indarkeria matxista jasandako emakumea

Maitasunaren izenean kolpeak -fisikoak nahiz psikologikoak- jasotakoa da Aina Castro. Kolpe bakoitza isilpean gordetzen zuen eta, gainera, kolpeak jasotzean bere buruari botatzen zion errua. Jasotako kolpeek, biolentziak, inolako justifikaziorik ez duela onartzea kostatzen bazitzaion ere, orain argi dauka hori.



### OLATZ ARTOLA APEZTEGIA

Maitasunaren izenean kolpeak –fisikoak nahiz psikologikoak– jasotakoa da Ainara Castro. Kolpe bakoitza isilpean gordetzen zuen eta, gainera, kolpeak jasotzean bere burua kulpatzen zuen. Jasotako kolpeek, biolentziak, inolako justifikaziorik ez duela onartzea kostatzen bazitzaion ere, egun argi ikusten du. Argi hitz egin du bizitako guztia eta birgogoratzea kolpea izan den arren, terapia ere izan dela aitortu du.

#### **Noiz hasi zen ametsgaiztoa?**

23 urterekin, ni baino 27 urte zaharragoa zen gizon bat ezagutu nuen. Momentu horretan maitasun falta handia nuen.

#### **Maitasunaz ari garenean, normalean, bikoteen arteko maitasunaz ari gara. Zu ere maitasun falta horretaz ari al zara?**

Bai, hori da. Ordurako lau urteko alaba bat nuen. Alabak hiru urte zituenean bukatu zen bere aitaren eta nire arteko harremana. Bakarrik sentitzen nintzen, psikologikoki behea jota nengoen, gaizki.

#### **Eta gizon hori helduleku moduko bat izan zen, ezta?**

Bai. Bera nire zaintzaile edo babesle moduan ikusten nuen.

#### **Zeneukan desoreka horretan orekatzen lagunduko zintuen pertsona moduan ikusten zenuen, alegia.**

Hori da. Hasiera batean bai.

#### **Baina gero ez zen horrela izan, ezta?**

Hiru edo lau urte pasa zirenean guztia aldatu zen. Ezin nuen inora bakarrik joan, ezin nuen inorekin hitz egin. Berarekin joan behar nuen toki guztietara. Berak esaten zuenaren arabera, gizon guztiek inbidia sentitzen zuten bera nirekin zegoelako, eta, hori, gizona zkoek begiratu egiten nindutelako ondorioztatu zuen.

#### **Eta zu noiz ohartu zinen hori guztia ez zela maitasuna, posesioa eta indarkeria matxista baizik?**

Hasiera batean berak pila bat maite ninduela uste nuen, eta babes hori maitasun horren ondorio zela. Zazpi urte elkarrekin igaro eta gero lehen bultzada eta masailekoak hasi ziren. Oso agresibo jartzen zen.

“Bi ubeldura nituen besoan, eta medikuak hori ikustean gaiari tira egin zion eta negarrez hasi nintzen”



### **Indarkeria psikologikotik fisikora pasa zen.**

Ez nuen ulertzen zergatik zuen jarrera hori nirekin, nik ondo tratatzen bainuen. Eguna ondo hasten zuen, umoretsu; baina, orduak aurrera egin ahala, umorea txartzen zitzaien. Janaria lurrera botatzera edo min egitera iritsi zen.

### **Eta gertatzen zen guztia zuretzat gordetzen al zenuen?**

Nik ez nuen ezer ere ez kontatzen. Ez nuen inor arduratu nahi. Lotsa ere sentitzen nuen. Familiak aurretik esana zidan gizon hori ez zela egokia. Ez zitzaien batere gustatzen. Nik ez nien kasurik egiten. Orduan, kontra egin eta gero bizi nuena kontatzea berei arrazoia ematea ere izango zen.

### **Baina zu kontziente al zinen arrazoi zutela ala laguntza behar izan zenuen hori argi ikusi ahal izateko?**

Ez, orduan ez. Behin medikuarenera joan nintzen, berak besotik tira eginda min egin zidalako. Hiru egun pasa nituen etxean, baina sendatzen ez zenez, medikuarenera jo behar izan nuen. Bi ubeldura nituen besoan eta medikuak hori ikustean gaiari tira egin zion eta negarrez hasi nintzen. Psikologoarenera bidali ninduen eta tratamenduan hasi nintzen psikologoarekin eta psikiatrarekin. Begiak irekitzen hasi nintzen orduan, baina berarekin jarraitzen nuen.

### **Zergatik? Beldurragatik?**

Beldur handia sentitzen nuen, bai. Akabatu egingo ninduela esaten zidan, mendi batean zulo bat egin eta hor sartuko ninduela. Oso izaera txarra zuen. Ni, aldiz, oso isila eta lotsatia nintzen. Nirekin nahi zuena egiten zuen.

Erlazioa uzteko beldurra sentitzen nuen. Beldurraz gain beste hainbat sentimendu ere sentitzen nituen. Maite ere egiten nuen...

### **Egiten zuen guztia eginda ere, maite egiten zenuen...**

Asko, gainera. Nahiz eta denborarekin maitasun hori joan egin den, pixkanaka-pixkanaka. Iraindu ondoren, barkatze-ko esaten zidan, ez zidala berriz ere egingo. Nik beti sinetsi egiten nion.

### **Adituen laguntza, beraz, ezinbestekoa izan zen arazoari adarretatik heltzeko, ezta?**

Bai. Adituen laguntza ezinbestekoa izan zen, baina baita

alabarena ere. Alabak bi alditan ikusi ninduen negarrez. Gizon horrekin ez nengoela ondo esan zidan. Eta zure alabak hori esatea oso gogorra da.

### **Alaba nola tratatzen zuen zure bikotekideak?**

Oso-oso harreman gutxi zuten. Nire alabak ez zuen berarekin erlazionatu nahi. Egunean zehar eskolan egoten zen eta iluntzetan aton-amonen etxean. Arratsalde batzuetan nirekin egoten zen, baina baita familiako beste kideekin ere. Nik ez nuen nahi alabak kontu horiek ikustea, orduan, ezkutatu egiten nuen. Dena den, batzuetan alaba gurekin egoten zen. Bera gurekin egoten zenean iraindu egiten ninduen, baina ez ninduen jotzen.

### **Eta noiz erabaki zenuen harremanarekin bukatzea?**

Jipoi handiena eman zidanean. Txikiteatzera joan zen. Gero, etxeratzean, bultza eta lurrera bota ninduen. Ostikoka eta irainka aritu zen. Berriz ere kalera joan zen eta orduan nik eskatu nuen laguntza. Hor konturatu nintzen ezin nuela horrela jarraitu. Salaketa jarri nion eta medikuak ere ikusi ninduen. Atxilotuta eman zuen gaua. Hurrengo egunean epaiketa izan genuen eta 18 urteko kartzela zigorra jarri zien. Sei urtez ezin zuen nigana hurbildu, 300 metroko distantziara. Dena den, azken arau hori bi alditan hautsi du.

### **Epaiketa gehiago izan dituzue, beraz...**

Bai.

### **Orduan, bukatutzat eman zenuenean ez zen bukatu...**

Ez. Oraindik beldurra daukat. Ni akabatu arte ez zela geldituko esan zidan eta. Baina orain Alacanten nago eta Oriora joaten naizen bakoitzean egungo bikotekidearekin joaten naiz.

### **Hara, Alacantera, bizi berri baten bila joan al zinen?**

Ihesi etorri nintzen, hemen lagun bat dudalako. Nire egungo senarra ere hemen ezagutu dut. Berak aurrera egiten lagun du dit. Babes handia izan da niretzat. Ezagutu eta gero Zumaiara joan ginen bizitzera, han bi urte egin genituen, baina bueltan etorri gara, duela gutxi, gaixorik dagoen familiarteko senide bat zaindu eta lagundu egin behar dugulako. Oso pozik nago hemen, Monovar izeneko herrian.



“Begietako bendak eta esku muturretako sokak kendu ditut”

“Ni bezalako egoera bizi duten emakumeei ez isiltzeko esango nieke”

**Babestu zaituen arren, horrelako egoera bat jasan eta gero, emakumeak autonomoa izan behar duela ere ikasiko zenuen?**

Bai, hori ikasi dut. Kostata, baina bai. Orain sekula egin ez dudan hori egiten ari naiz, 39 urte eta gero zoriontsua naiz.

**Askatasunak ematen dizu zoriontasuna?**

Aske, hori da hitza. Begietako benda eta esku muturretako sokak kendu ditut. Orain libre sentitzen naiz.

Denok merezi dugu aske izatea, eta inork ez nik pasa dudana pasatzea. Hemendik esan nahiko nieke ni bezalako egoera bizi duten emakumeei ez isiltzeko.

**Isiltasunak akabatu egin dezake bat, ala?**

Kasu gehienetan bai. Eta, irmoki diot, argi izan behar dugula biolentzia matxistak ez duela inongo justifikaziorik.

**Garrantzia ematen diozu isilpean ez gordetzeari...**

Bai, nik isilpean gorde nuelako. Ez nuen etxean esan, eta damu naiz, bere jakin egin behar zutela iruditzen baitzait.

**Azkenean isiltasun hori haustea erabaki zenuen. Horretarako bide asko daude: larrialdi zentrorra joatea, telefonoz deitzea... Denak dira isiltasuna baino hobek, ezta?**

Noski. Beti laguntza eskatu behar da, kontatu. Zeren biolentzia gero eta gehiagora joaten da. Irainekin hasten dena jipioekin bukatzen da. Barkamena eskatu arren, aldatuko dela esan arren; hori ez da horrela izaten. Okerrera joaten da.

**Kontatzeak berak sendatzen laguntzen du?**

Laguntzen du, terapia modukoa da. Bizitakoa gogorarazten dudana bakoitzean negar egiten dut. Ez da ahazten. Denborak guztia sendatzen duela esaten da. Ez dakit horrela den. Nire kasuan ez dut ahaztu, baina horrekin bizitzen ikasi dut.

**Eta alabak? Zurekin bizi al da?**

Bai. Oso harreman ona du nire bikotekidearekin. Bere aitarien familiarekin, ordea, ez du harremanik. Orion izan zen bisitan irailaren 15ean, aiton-amonekin.

**Zu azkenekoz noiz etorri zinen?**

Azaroan. Lagun bat bisitatzen izan nintzen. Ea laster itzultzen naizen.

**Faltan sumatzen dituzu gertukoak?**

Bai. Tarte hau aprobetxatu nahiko nuke nire anai-arrebei eta ilobei maite ditudala esateko. Gainontzeko senideei ere eskuminak bidali nahiko nizkieke.

# Euskalduna eta erosketako poltsa



Egoitz Dorronsoro Taboada

**Zure lurra maite baduzu bezalako esloganekin itsutzen gaituzten bitartean, eusko labeleko tomateek ez dute lurrik ukitzen.**

akina da, identitatea zerbait aldakorra dela, gu eta besteen arteko harremanean eraikia. Ondorioz, baita euskal identitatea ere, historia erreparatuz gero, garai batean, garrantzitsua hidalgotzea zen, ondoren Aranarekin, abizenak, arrazak ziren garrantzitsu, eta azken hamarkadetan, hizkuntza da muga eraikitzeko ezaugarririk garrantzitsuena.

Hala ere, egun, neoliberalismoaren haritik, aldatzen ari da, edo behintzat hizkuntzaz gain kontsumoa gehitu zaio. Egun, kontsumitzaile bezala hautematen eta kokatzen gara munduan, fribolitatera iritsi delarik. Etengabeko kontsumo neoliberaletik harago, norbanakoaren ardura erosteko unean amaitzen dela iruditzen zaigu. Haurrak eskolara eramane eta bueltan produktu perfektu gisa jaso nahi ditugu, kontsumo zabor sortzaile batean birziklatzea aukera bat dela iruditzen zaigu...

Azken hamarkadetan, turismo exotikoaren ondorioz identitatea ere kontsumitzaile igaro gara, hasieran nolabaiteko folklore bezala, ikusi, Iparraldean, nolako oroigarriak saltzen diren, edo nolako turismo iragarkiak egiten ditugun

Hegoaldean. Baina hau urrutirago joan da, jada ez da nahikoa beste gauzen artean euskaraz hitz egitea, *euskal* produktuak erosi behar dira. Ni ez nago bertakoa erostearen aurka, nire aburuz garaian garaikoa eta bertakoa erosi behar da. Arazoa, gure kulturaren ardura erosketen arabera antolatzean datza eta bertako produktuak saltzeko eredu eta mezuetan. Hau da, era kontziente batean sortu, birsortu zein kontsumitu behar dugu identitatea.

Horregatik ipintzen dizkiot kakotxak euskal diodanean, marka handien esloganen harira erosten dugu, gure identitatea eraikitzen dugulakoan, *zure lurra maite baduzu bezalako esloganekin itsutzen gaituzten bitartean*, eusko labeleko tomateek ez dute lurrik ukitzen. Beraz, bertako produktuak dagokien garaian era kontziente batean kontsumituz eta bertako kultura sustatuz, ekologikoago, sostengarriago eta demokratikoagoa den eredu bultzatzen dugu. Eta ez, iragarkietan ikusi ondoren, supermerkatu handienera joanaz, kaiku edo eusko label markapean plastikoz inguraturiko jakiak erosiz.



**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO





## Elkarlanean antolatutako festak

Bilera irekietan jartzen da herriko festen lehen hazia. Hor ereiten dira ideiak, asmoak, ilusioak; eta ekintzaile grin horretatik, elkarlanean, hazten eta gorpuzten dira ideia horiek guztiak. Sanikolasetan ere horrela izan da eta guztien artean egitarau oparoa osatu dute.





**Azku**  
  
**Tf: 943 130 438**  
**Azku**

**PIZZERIA**  
  
**KALETA**  
 ARRANTZALE KALEA, 10  
 TELEFONOA: 943 24 89 46

**Katu**  
**MORIA**  
 OLAGINTZA KINOKO  
**ESTROPALARI, 10**  
**20810 ORZO**  
 tel. 943 11 66 99  
 LARRIANDIAK  
 688 88 11 29  


**ur bide**  
 iturginak s.l.  
  
 Iturgintza - Berogintza  
  
 Bekala Kalea, 4  
 20800 Zarautz  
 943 890 069  
 urbideiturginak@gmail.com  
 www.urbide.es

  
**Seguros Bilbao**  
 Tel: 943 111 600  
 688 714 869  
 Endaia Enparantza, 1  
 20810 Oriz (Gipuzkoa)  
 Santi Barranco  
 Orioko ordezkaria  
 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

**URANGA**  
 burdindegia  
 Opari, menaje eta erremintak  
 fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

  
**AIRDATZA modas**  
 Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**GABONETAN OPARITU ARGAZKIAK**  
 24ean ETORRI ESTUDIORA!!  
 943831048  
 610697668  
  
**www.fotoramiro.com**

**ITZIAR**  
 kirolak  
  
 Tel. 943 83 31 03

**ZINKU**  
 Igeltseritza orokorra  
 Eusko enbisaia mola guztiak  
 fabrikak, barnu opiak, igeltserak...  
 Ander Zirkunagui  
 667 740 279

  
**Zarautz**  
 Hileta Zerbitzuak  
 > Hilerrien kudeaketa  
 > Hileta zerbitzu orokorrak  
 > Zerbitzu iraunkorra  
  
**Harrespil**  
 Hilerri Zerbitzuak  
  
**bai**  
 Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net





# Maria Auxiliadoraren Afrikako abenturak (II)

Orioko herriko Goiko Kaleko karkara batean, mutiko bat dabil, gaueko iluntasunean argitzeko, eskuan kriseilu bat duela; bapore bateko txotxoa da eta oihuka ari da: *Maria Auxiliadora, seietan irteera!*

**TESTUA: JESUS MARI PERONA LERTXUNDI**  
**IÑAKI ITURAIN EKUSKARATUA ETA EGOKITUA**  
**ARGAZKIAK: J. M. PERONAK UTZIAK**

**M**aria Auxiliadora arrantzontzia leku askotara ailegatu zen, urrutira, baita Afrikako Senegaleko kostaldera ere. Fikziora ere iritsi zen, Andu Lertxundik zuzendutako Kareletik filmera. Pelikula horren hasiera da Orioko herriko Goiko kaleko txotxoarena, eskuan kriseilu bat zuela, oihuka, arrantzaleak itsasora joateko esnatzen zebilenarena.

## Lehen bidaiako odisea

1961eko urriaren 9an itsasoratu zen Maria Auxiliadora Orioko moilatik, barruan arrantzaleak eta arrantza-tresna guztiak zituela. Ordurako, atunak utziak zituen euskal kostaldeko urak, eta haren atzetik joatea erabaki zuten Mediterraneora, Algeciras aldera. Han, pare bat marea egin zuten; gero, eguraldi txarra sartu eta portura jo zuten.

Eguraldiak onera egin zuenean, berriro itsasoratu ziren, baina ordurako zerrotea ere desagertua zen hango uretatik. Itsasontzi gehienek denboraldia bukatutzat ematea erabaki zuten. Maria Auxiliadorako arrantzaleak berriz arrantza gosez zeuden artean. Estanis beteranoa etxera itzultzearen aldekoa zen, baina semeak gazteak ziren eta eskifaiako gehie-



nakere bai. Denak ez zetozen bat hartu beharreko erabakian.

Juanito Larrañaga Xarpasek Dakarrera joatea proposatu zuen, Senegalera. Bera lehendik ere han ibilia zen, Dakarreko arrantza-bankuetan, eta bazekien han arrain asko izaten zela. Auxiliadorako gehienak bat etorri ziren Xarpasekin, eta proba egitea erabaki zuten, hara joatea, Kanarietatik barrena.

Kanaria Handiko Las Palmasen lehorreratu ziren, gasolioa eta bibereak hartzeko. Marinako Komandantzia erretentitu egin zituzten. Ontzian ez zihoan kostako patroirik inor, araudiaren kontra. Bertako bat hartu behar izan zuten berriro itsasoratzeko. Orduan bai, orduan Dakar aldera jo zuten.

Ez ziren ondo moldatu gizon harekin. Haren lan egiteko modua eta oriotarrena ez zetozen bat. Eztabaida handiak eta garratzak izan zituzten. Azkenean, erabaki zuten gizon hura lehorrean uztea, adostutako diru-saria ordaindu eta gero. Dakarren utzi zuten.

### **Xarpasen larrialdia**

Afrikan ez zegoen hobeto hasterik. Egun gutxitan goraino bete zuten baporea arrainez, bere mugaraino -32.000 kg.-. Arraina Dakarren lehorreratu zuten.

Itsasoan ustekabeak gertatzea normala da. Dakarreko arrantza-gunean zirela, konturatu ziren egurrezko txanelak pitzadura handi samarrak zituela eta ura sartzen zitzaiola.

Txanalekoa, hala ere, Xarpas, moldatzen zen nola edo hala bere xukaderarekin. Gau batean, hala ere, txanela gizona barruan zuela uretan utzi zuten, itxituraren erdian, bere traste guztiekin -bateriak, argitarako fokuak, arraunak, xukadera, beita...-.

Baporea arrantzarako prestatzen ari zela, txanolean ura sartzen hasi zen, asko. Hondoratzen hasi zen, eta Xarpas larritzen, argiekerakarrita inguruan tiburoiak zebiltzala ikusita. Xarpasek bapora aldera jo zuen, arraunean, aldi berean ura xukatuz, baina ezinean.

Egoera larritzeko, baporeak matxura txiki bat izan zuen eta sarea ixteko maniobra bertan behera geratu zen. Xarpas ere jabetu zen horretaz. Baporeko gizonak ere bai Xarpasen egoeraz. Trantze benetan larria eta arriskutsua izan zen hura, baina azkenean lortu zuten Xarpas baporera onik igotzea. Egoera hartan, arrantzaletako bat baino gehiago gogoratu zen txikitik ikasitako otoitzez.

### **Dakarreko abentura**

Itsasoan larri tiburoien artean, baina lehorrean ere larri, burokraziaren erdian. Arazoak. Senegal frantsesen kolonialismotik askatu berria zen, eta hango egoera politikoa nahiko gorabeheratsua zen. Orduan Senegalek ez zeukan inolako harreman komertzialik ez politikorik Espainiarekin eta horren ondorioz ezin zuten arraina, Dakarreko arrain-bankue-



Martxiel Urkizu eta Martin Aizpurua, 1962an, Sierra Leonan

“Xarpaxek Dakarrera joatea proposatu zuen”

“Inguruan tiburoiak zebiltzala, larritzen hasi ziren”

“Epidemia zabaldu zen baporean”

“Enbaxadoreak atera zituen egoera latz hartatik”

tan harrapatua, han saldu.

Saiatu ziren arazoa konpontzen, horretarako jo behar ziren ateak jotzen. Baina ezin. Beraiek ezin saldu arraina eta gainera beren diruarekin ezin ezer erosi. Gauzak trukutzen ere ez zieten uzten. Egoera larria zuten. Bibereak eta erregaia ahitzen hasita, egun gutxi batzuetarako besterik ez zuten. Gasolioa motor laguntzaile bat martxan jartzeko bakarrik zeukaten, argiak, irratia eta gainerako aparailuak pizteko baliotuena. Jatekoak errazionatzen hasi ziren. Eskerrak baporeko baserritar batek gordea zuen zaku batean ogi zaharra, kanpaina bukatutakoan baserrira eramateko; hura banatu behar izan zuten.

Egunak pasa ahala, etsitzen hasi ziren. Egoera txarra zuten: egonezina, haserreak, etsipena; eta, gainera, epidemia bat zabaldu zen, infekzioa eta garauak, Algecirasen inolako txertorik hartu gabe jo zuten Dakar aldera. Egoera kaotikoa bihurtu zen, baporeko arrantzale asko gaixotu egin ziren. Baporeko jangela, bertan ama birjinaren irudia zeukana, erizaintzako gela bihurtu zen. Hantxe zaintzen zituzten arrantzaleak, gero eta maizago ateratzen zitzaizkien erlakiztenetatik.

### Jaungoikoa oriotarren alde

Gauzak horrela zeudela, igande batean arraza zuriko bikote bat ikusi zuten moilan pasean, haur txikiekin. Bikotea ere harritu egin zen han Espainiako bandera zuen barku bat ikusita. Ontzira inguratu ziren, interesa erakutsiz. Berriketan hasi ziren. Panamako enbaxadorea zen, Santanderkoa bera, familiarekin pasean zebilena. Haiak berehala konturatu ziren oriotarrek ezer gutxi zekitela Senegaleko egoera politikoaz. Enbaxadoreak atera zituen egoera latz hartatik. Hurrengo egunean, han zen berriz, kamioiak, bibereak, baimen berezi bat, eta behar zen guztiarekin. Arraina saldu ahal izan zuten eta gainera inguru hartan arrantzan segitzeko baimena eskuratu, beste marea batzuk egiteko.

### Ezkutuko arrantzalea eta platano berdeak

Ailegatutako bibereen artean, platano sorta eder bat ere bazen, artean heldu gabeak, berde samar. Gizonak artean gose ziren, asetu gabe zeuden. Gau hartan, guardia egiten ari zena, gero sustoaren ondoren aitortu zuenez, platanoak jaten hasi zen, bat bestearen atzetik. Biharamunean, sukaldaria ohartu zen han platano asko falta zela, eta arrantzaleen artean susmoak eta esamesak hasi ziren, txantxetan errua hango hegaztiei emanez, baina jakin bazekiten platanozalea baporean zegoela, beren artean. Agudo argitu zen egoera. Handik ordu gutxitara arrantzale batek koliko izugarria zuen. Gizona larri jarri zen, beldurtu egin ziren haren osasunaz, baina mutilak hobera egin zuen; hori bai, ez zen libratu beste arrantzaleen txantxa eta adar jotzetik.

### Sierra Leonara bermeotarrekin eta lekeitiarrekin

Beste marearen bat ere egin zuten. Egun batean, itsasoan

zirela, jakin zuten irrati bidez Euskal Herriko hainbat bapora hara joatekoak zirela arrantzara, Bermeoko 13 eta Lekeitio-ko 3. Baimendutako eta antolatutako kanpaina baten barruan joan ziren Bizkaiko ontziak. Seigarren kanpaina zuten hura. Aurrekoak Dakarren eginda, oraingoan hegoalderago zihoazen, Sierra Leonara, hango hiriburu Freetown izango zuten lehorreratzeko portua.

Oriotarrak asko poztu ziren, soldaduskan ezagututako gazteak topatu zituzten etorri berrien artean. Kanpainaren berri jakinda, Orioko ontzikoak harremanetan jarri ziren Mister John Tasso *Van Camp Sea Food Company* konpainia amerikarraren arduradunarekin, eta lortu zuten, paperak beteta, beraiek ere aukera izatea Sierra Leonako kanpainarako.

Oriotik abiatu zirenetik zazpi hilabete pasatuta bukatu zuten Sierra Leonako azken kanpaina eta itzuli ziren etxera.

### Tiburoiak eta naufragioa

Afrikako zona hartan tiburoi asko ibiltzen zen ontziaren inguruan. Behin, ontziaren patroia kareletik pixa egiten hasita, tiburoi batek salto egin zion, ur txorro haren iturriaz jabetzeko asmotan. Sarasuak atzera egin eta ozta-ozta libratu zen tiburoiaren erasoaz.

1962ko otsailaren bukaera aldean, itsasoan zirela, Maria Auxiliadorak laguntza eman behar izan zion Bermeoko San Pancraccio ontziari, haien naufragioan. Gaua zen, itsasoa bare, goizeko hirurak aldera, guardian zegoen Martxiel Urkizuk ikusi zuen nola inguruan ziren Bermeoko bapora haietako bat gainera zetorkiela noraezean. Ikaratuta, oihu egin zuen *baporea hondora dihoala*. Bapora hura sutan zetorren, kontrolatik kanpo, zuzenean beraien gainera.

Marrua entzunda, oriotarrak denak altxatu ziren beren kamainetatik, eta Estanis patroiak marru egin: *arranka motorra*. Motoristak motorra martxan jarri eta *abante* eginda lortu zuten San Pancraccioaren talka saihestea. Gainerakoan, txokea gertatuko zen eta biak hondora joan.

Ondoren, atzera egin eta laguntza eman zieten: lehenengo, sua itzaltzen eta, gero, baporean ura sartzen zela ikusita, kubiartan zeuden sare, kanabera eta gainerako tresna guztiak Maria Auxiliadorara pasatzen. Inguruan, bitartean, tiburoiak zain. Larri ibili ziren, baina lortu zuten gizon guztiak bapora batetik bestera pasatzea.

Bermeotarrek Orioko baporetik ikusi zuten, begiak malkotan zituztela, nola beren ontzia hondoratzen zen Afrikako ur haietan.

Lehorrera iritsita, San Pancraccio ontziko bibereak eta gizonak gainerako bapora guztien artean banatu zituzten. Maria Auxiliadorari sukaldaria egokitu zitzaion, Julen. Gizon hark kontatu zien oriotarrei hura bere hirugarren naufragioa zuela. Oso gizon eta sukaldari ona zen Julen eta harreman estua sortu zen haien artean. Bermeon lehorreratu zutenean, malko asko ziren oriotarren masailetan.

### Oriora iritsi zirenekoa

Orion itsasoratuta 1961eko urrian Algeciras aldera abiatu zi-



renean, gabonetan etxeratzeko asmotan ziren. Bizpahiru hilabete itsasoan. Baina gauzak bestela joan ziren eta 1962ko maiatzaren 5ean bueltatu ziren herrira.

Itsasoan izan ziren bitartean, karta bidez jakiten zuten Orion Auxiliadorako arrantzaleen berri. Afrikan zebiltzan arrantzaleen gaineko albisteak berehala zabalitzen ziren okindegian, denda eta tabernetan, eta batez ere eskabetsu-errietan – orduan herrian asko zeuden –. Bikarioak berak ere go-goan izaten zituen, elizako sermoi eta otoitzetan.

Herritarrek bazekiten Maria Auxiliadora zer egun eta zer ordutan lehorreratuko zen Orion. Langileak eskabetsu-erria eta tailerra utzi eta kalera atera ziren, baita haurrak eskolatik ere. Jende asko bildu zen barran, arrantzaleei ongi etorria egiteko, eta haiekin batera moilaraino etorri, baporeko arrantzaleak pozez gainezka agurtuz.

Elizako kanpaiak jotzen ari ziren, festa-egun handietan bezala. Itxaferoak bota zituzten zerura, estropalariak bandera irabazitakoan bezala. Fabrika eta tailerretako sirenak ere joka hasi ziren, kofradiako kanpaia bezala. Eta moilan amarratuta zeuden baporeak, beren bozina. Herrian ziren eta, ongi etorriak animatuta, Maria Auxiliadora ere sirena jotzen zuela iritsi zen moilara. Urte batzuk lehenago –1957-58–, antzeratsua gertatu zen Madre del Cantabrico baporea Dakarretik itzuli zenean.

Baporeak itxura kaskarra zuen momentu hartan. Ez zuen antzik zazpi hilabete lehenago itsasoratu zen barkuarena. Ia ez zitzaizkion koloreak antzematen, herdoilduta, zikina...

### Emozio handiko ongi-etorria

Ongi etorria borobiltzeko, musika-banda bakarrik falta zen, eta Aiestaran alkate jaunak udaletxean harrera egitea. Egunduz zurraragarria izan zen arrantzale haien zentzua eta beren senideentzat, baita herritar askorentzat ere. *Sentimentala* esaten zuen baporeko arrantzale batek, Martin Aizpuruak, begietan malkoak antzematen zitzaizkiola, *hunkigarri eta ahaztezina*.

Hurrengo egunetan baporea pintatu eta txukundu egin zuten, eta lehen egunean bezala utzi. Eta arrantzan segitu zuten Oriotik.

Garai hartan arrantzaleek zuten kezketako bat zen lana urte guztian izatea itsasoan. Auxiliadora horretan saiatu zen, itsasoko kanpainak luzatzen. Horretarako, bitan banatu zuen pertsonala, 15 egun inguruko mareetan txandatzeko. Arrantzako hiru moduak erabiltzen segitu zuen: zerkoa, kanabera eta arrastea.

Horrela jarraitu zuen baporeak urte batzuetan, sarasuataren eskuetan. Gero, gorabehera batzuen ondoren, azkenean baporea saldu egin zuten, garaiko milioi bat pezetaren truke. Baporea Oriotik A Coruña-ko Santa Uxia de Ribeirara aldatu zen. Geroztikakorik ez dakigu ezer bapore harena.

Historia, zientzia eta literaturako izen handiko pertsona askorentzat, XIX mendeko bela-ontzi handiak dira gizakiak sekula egindako izaki perfektuenak eta ederrenak. Perona bat dator haiekin. Eta beste horrenbeste esango luke, ontzi motordunei dagokienez, sarasuatarrak Maria Auxiliadorari buruz.

“Bermeotarrek, malkotan, beren baporea itsasoan hondoratzen ikusi zuten”

“Jende asko bildu zen barran arrantzaleei ongi-etorria egiteko”

“Itxaferoak, elizako kanpaiak, baporeen sirenak... hunkigarria izan zen”

# azkue

## karrozeria



Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
Tf/fax: 943 83 51 86  
carroceriasazkue@hotmail.com

emakume arropa - neurri bereziak  
kinkiladenda - barruko arropa



Ustea denekua familia agerim saartelarekin  
Eusko Gudari, 9 - Orio  
943 134 889 [argine/jantziak](mailto:argine/jantziak)

**ARISTERRAZU**  
jatekua

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**EKILORE GARBIKETAK**

626417841  
[ekilore@outlook.es](mailto:ekilore@outlook.es)



Orioko Herri Ikastola  
Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
[orio@ikastola.net](mailto:orio@ikastola.net)  
[www.oriokoikastola.net](http://www.oriokoikastola.net)

*Garbino Arregi*  
Modo eta osagarriak

Honela platu, 5  
635 706 265

*jaizguntan goizez zabalki!*

obrak  
proiektuak  
errehabilitazioak  
txostenak  
eraikuntza zerbitzuak  
ITEak  
eraikinen mantenua

**XS** arkitektura

borja agirresarobe lopetegi  
heniko-bara 6. behea  
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2  
9 4 3 1 3 4 3 5 8  
[xs@xsarkitektura.com](mailto:xs@xsarkitektura.com)

**ROSANA**  
-ARGAZKI ESTUDIOA-

ABENDUAK 24  
EGUN OSOAN IREKITA  
ETORRI ESTUDIOARA  
ARGAZKITXO BAT  
ATERATZERA!

*Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu!*  
Telf: 943 83 58 45  
[fotorosanaarruti@gmail.com](mailto:fotorosanaarruti@gmail.com)

*eduzitegia*  
**ANTILLA**  
*juletegia*

Abeslari Kalea, 2 - TEL. 943 83 23 00

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

*Gabon Zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**Gaberna**  
JATEKUA

Antillako Hondartza 5  
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidaiak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 95



Mari Carmen, futbolearen, iloba Axier Garmendia eta Jokin eta Igor Salsamendirekin. M.C. OLIDEN

## Oroimenaren kutxa

# Jokoa ez da errenta

Jolastu, jostatu, jokatu... ez dira berdinak euskaraz, nahiz eta gure erdaran denak jugar izan. Hitz honetan aberatsagoa da euskara; baina, tamalez, beste hitz batzuetan bezala, galtzen ari gara aberastasun hori. Zerbaitentzat orain dena da jolastu, baita futbol partidua baldin bada ere. Ibon Sarasolak bere azken liburu plaza-ratu berrian hauxe dio: *ez dut ezagutzen euskal esatari edo idazle onik jolastu eta jokatu bereizten ez dituenik*.

Jokoa ez da errenta. Horrela dio jakituriaz beteriko euskal esaera zaharrak. Jokoak arrisku handiak ditu, haren menpean erortzeko, baita ondasunak eta osasuna galtzeko ere. Al-diz, jolasa behar-beharrezkoa du gizakiak, jolastea edo jostatzea.

Gu gaztetxo ginela, 1960 hamarkadan, Orion ez zegoen ez gaztetxe, ez gazte-leku, ez ludoteka, ez Txurumuski, ez haur parke, ez kultur etxerik... Kaleaz aparte, josta-leku bakarra zegoen: Salon Oliden, futbolarik. 1966an zabaldu zuten Ramon Mari Oliden eta Mari Carmen Manzidor senar-emazteek Salon Oliden hura, San Nikolas karkaran, Jose Mari erretegiaren atzealdean. Toki haren oroitzapenak datozkit orain, xalo-xalo. Huraxe izan genuen jolastoki orduko gaztetxook. Hantxe elkartzen ginen neskek eta mutilak, gainera-koan aparteko eskoletan genbiltzanak. Han, orduko gure ludoteka hartan, aisialdirako teknikaririk gabeko jostalekuan, futbolarik geneuzkan, pinpona, billarra eta tokadiskos bat; denak mundialak. Eta onena, hura gobernatzen zuen emakumea, Mari Carmen, emakume alai eta kementsua.

Toki Alai herriko jatetxe-ostatu baten izena zen orduan, baina Mari Carmenen lokalaren izena ere izan zitekeen, egoki asko. Gazte-gune hura horixe zen-eta: jostatzeko toki mundiala. Futbolearen, pinponean edo billarrean trebatzeko aukeraz gain, Benito, The Beatles, Rolling Stones edo Urretxindorrek musika-taldean azken kantuak gozatzeko aukera ematen zigun. Eta barruko eskaileretako itzalgunea

topaleku ederra zen neska-mutilentzat.

21 urtez egon zen zabalik, 1987 arte. Orioko zenbait belau-nalditako neska-mutilen bigarren eskola izan zen hura; elkarrekin egoten eta jolasten ikasi genuen. Baina handik ez zen ludopatarik atera inor. Batzuek eskolan baino gehiago ikasiko zuten han, seguru asko, bizitzarako.

Euskal Herriak apustu zale fama handia du. Baietz! Ezetz! Euskaldunak joera handia izan du apusturako, norberaren iritzia edo ustea indartzeko modua izan da apustua, *jarri dirua, bestela ixo!* izan ohi da apustuzalearen erronka, kontra-ko iritzia agertu duenarentzat.

Euskaldunak herri kiroletan egin du orain arte trabesa, artekari bidez; nagusiki, frontoian, euskal pilotan. Orion, nabarmen, arrauna izan da apustuzaleen topalekua: iraileko aurreneko bi igandeetan, Donostiako Portaletan: *Oriok bigarrenari 10 baietz!* Aian, berriz, idi-demak erakarri ohi du jendea apustura. Baina jokorako aukera mugatua izan da toki eta momentu jakin batzuetara.

Orain joera hori apustu-etxeetara eramán dute. Bestelako droga batzuen kontsumoari erakundeetatik mugak jartzen ari zaizkion garaiotan, jokorako grina sustatzeko joera antzematen da oro har gizartearen aldetik; ETBtik, adibidez, albis-tegietan kasinoei publizitate ezkutua emanaz. Telebistatik, irratitik..., nonahitik, dirua jokatzeko konbitea ari zaie iristen gaur egungo gazteei etengabe: *Jokatu, jokatu, oso erraza da, etxetik bertatik jokatzeko daukazu, edo auzoko tabernatik, edo mobiletik, zuk nahi haina diru!* Menpekotasuna sortu eta jokoaren morroi izateko gero eta arrisku handiagoa dute egungo gazteek. Errazegi dute euroak xahutzea. Ludopatak gero eta gazteagoak dira. Tarteka, kasu triste eta negargarrien berri ari zaigu iristen, eta oso gertuko jendearena.

Ai Mari Carmenen futbolarik haiek!

# Hik lan eta nik jai



Leire Beldarrain Beldarrain

**A** benduak 5, arratsaldeko 19:00ak. Hasi dira San Nikolasak! Ardo, kalimotxo edo zerbeza eder batekin hasi ditugu festak barra izkin batean. Batzuk lana egin behar beste batzuk parranda ederra botatzeko! Egunez disfrutatzeke ekintza ugari egon arren, ni bezalako gau txori asko izan da festa hauetan gauez gozatzen. Askok eguna lo pasa eta.. hara! Iluntasunarekin batera agertu dira, berriz ere basoa eskuan dutela. Aurten gainera asko bluxa eta guzti, dotore!

Gauza handien beharrik ez dugu parrandan ibiltzeke, ezer ez ta festa! Taberna pare bat eta musika apur bat. *Aldapan gora eta aldapan behera*, aurtengo kanturik entzunena. Bat baina gehiago ikusi da festetan lehenengo gora eta gero behera.

**“Txorakeri eta barre ugari, baina baita giroa izorratu duen hainbat komeri ere”**

Askorako eman dute San Nikolas hauek; txorakeri eta barre ugari, baina baita giroa izorratu duen hainbat komeri ere. Kable puskatuak, lapurtutako eltxetxoak. Gizaki edo animala? Denetik ikusi da festetako bost gau luzeetan.

Ni bezalako felixianak ordea gustura ibili gara. Gustura, liskar eta giro txarrak alboratu eta festak ahalik eta gehien zukutzen. Jende gutxi zegoen egunetan ere ezin etxera joan, orduantxe parrandarik ederrenak, *petit comité*.

Guk jai egiteko tabernariak lana egin behar, eta tabernariak lana egiteko guk jai berriz! Barra barrutik ikusitakoak ere entzutekoak izango dira.



Olatz Beldarrain Beldarrain

**A** estarako bidean aldaparik ez dagoela, lanerako bidean bai ordea! Batzuentzat ez dira festa motxak izan. Bost egunak luze joan dira taberna zulotan sartuta, baina kasu honetan barraz bestalde. Orion ez dela parranda zalerik falta, eta San Nikolas hauetan ere argi geratu da horrelako asko dagoela.

Hori da irribarrea zuena jendeak arratsalde-iluntzeetan. Zoriontsu, biharrik ez balitz bezala poteo ederra botatzen. Beste batzuei ordea, lana egitea ere tokatu zaigu. Tabernariak ere gora ta behera ibili gara, baina beste modu batera. Atera zerbeza eta atera kalimotxo. Goizeko 6ak iritsi eta jendea oraindik trago eske, hori da hori sakea!

**“Barre ederrak egin ditugu kanpora begira. Zein desberdina ikusten den gaua kanpotik eta barrutik”**

Liskarrerako jendea beti dagoen arren, barre ederrak ere bota ditugu kanpora begira. Zein desberdina ikusten den gaua kanpotik eta barrutik! Egunez dantzarako grin handirik ez duena ere dantzan ibili da gauen zehar, altabozetatik ateratako edozein melodia kantarekin. Batzuek uste dute gaueko eta tabernako iluntasunean ez dela ezer ikusten. Baina hor gaude gu, barra barruan, ixkutuan bageunde bezala, dantza, ligoteo eta balantzei begira!

Festak bukatu eta dena jaso eta txukuntzea tokatzen da, beldur apur batez, barraren beste alde nola dagoen begiratu: sabai eta paretetako alkohol arrastok garbitu, ateak konpondu, fregona gutxienez hamar bat aldiz pasa... agur San Nikolas, hurrengo urtera arte!





# Eskola kirola, kirola denontzako

## Joseba Agirre

Eskola kiroleko arduraduna

Zaragueta LH5. mailako ikasleok Joseba Agirre futbolari ohia eta gure eskola kiroleko arduraduradunari elkarrizketa egin diogu. Interesgarria iruditu zaigu kirola bizibide eduki duen pertsona batek gaur egungo egoera azaltzea.

### Zenbat urte egin dituzu eskolako kirol arduradun lanetan?

Bost urte egin berri ditut.

### Zein da eskola kirolaren helburua?

Eskolako haurrak kirola egitea, kirol ezberdinak ezagutzea, beste haur eta gurasoekin harremanak lantzea eta nola ez, disfrutatu eta ondo pasatzea.

### Aipatu dituzun helburuak betetzen dira?

Helburuak betetzen dira. Egia da batzuetan gorabeherak izaten direla.

### Zein da eskola kirolean gustukoa ez duzuna?

Nik, batez ere, helduek batzuetan duten jarrera ezkorra eta ez aproposa aipatuko nuke.

### Eta gustukoa duzuna?

Asko ditut. Osasuntsu eta sasoiko egoten laguntzen du, auto-estimua hobe-

tzen du, pertsona baikorragoa eginez eta lagunetik harremanak areagotuz.

Kiroltasunean joko garbian oinarritutako gizalegezko portaerak ikasiko dituzu, talde lanerako gaitasunak hobetuz.

Arauek eta kideak onartzen eta errespetatzen ikasiko duzu.

### Nola hobetu daiteke?

Alde batetik haurrei kirol aukera zabala go bat eskainiz. Bestalde, jarrera baikorragoak eta errespetuzkoak izatea eskola kirolean parte hartzen duten haur, epaile, entrenatzaile eta kirol koordinatzaileekiko.

### Zein kirol sartuko zenituzke?

Mendia edo naturarekin harremana duten edozein kirol: surfa, orientazioa, eskalada...

### Zein aholku emango zenieke gurasoei?

Emaitzetan eta irabazi-galdu dinamika ahaztu eta disfrutatzen saiatzea. Guraso bihurtzea.

### Eta haurrei?

Kirol desberdinak probatzeko aukera badute, beldurrik ez izatea. Eta gurasoei bezala, emaitzarekin bakarrik ez itsutzea.



Jon eta Anour

## Olatu kanpoko zikinkeria

Olatu txutxe-dendako ataria astelehen goizean zikinkeriaz beteta egoten da. Ondo iruditzen zaigu kanpoko koxkan egotea, baina pipa azalak eta gusanio ten poltsak lurretikan botata egoten dira. Batzuetan hortik pasatzen garenean pipa azal guztiak zapataren azpian pegatuta gelditzen zaizkigu. Jende askok esaten du pereza ematen diola zabor ontziraino joateak; baina kasu honetan aitzaki honek ez du balio zaborra bi metro baino gutxiagotan dagoelako.

Agure bat badago Olatu denda paretik pasatzen den bakoitzean, koxkan eserita dauden umeei errieta egiten diena txutxeen zaborrak eta pipa azalak lurrera botatzen dituztelako. Hori, agian, dendarien lana izango litzateke. Edo udaltzainena.

Dena den, guk pentsatzen dugu arazo honetaz bakoitzak hausnartu beharko lukeela eta ikusi nola jokatzeko duen. Zaborra dagokion ontzira botatzea ez da esfortzu handia eta herriak asko irabaziko luke, denok nahi dugulako Orio txukun eta ederra.

**Jende askok esaten du pereza ematen diola zabor ontziraino joateak**

# Salbuespenak salbuespen, desorekarik ez diru kontuetan



Orioko Udal Gobernuaz azkenengo udalbatzarrean. KARKARA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Orioko Udalari azterketa sakona egin zion duela bi urte, 2014an. Azterketa horren emaitzak jaso, ordenatu eta interpretatu ditu, eta guztiak txosten batean bildu ditu aurten. Txostena mardula da, 50 orrialdekoa.

## Gardentasuna Orainen eskaera

Azken udalbatzarrean Orain herri plataformako buruak, Miriam Urangak, fiskalizazio-txostena herritarren eskura uzteko eskaera egin zion Joxe Anjel Zaldia alkateari. Jeltzaleak eskaria beteko zuela esan zion, eta horrela egin du, abenduaren 2tik publikoa baita txostena.

## Lau ardatz nagusi

Legezkotasuna, kontabilitatea, Udalaren egoeraren finantza analisia eta alderdi partzialen azterketa. Atal horiek aztertuta bermatu ahal izan da Orioko Udalak arauak betetzen dituela; egoe-

raren balantzea, galera-irabazien kontua, aurrekontua eta antzerakoan kontabilitatea fin daramala.

## Gainditu du azterketa

Salbuespenak salbuespen, azterketa egin duen epaitegiaren ustetan, Orioko Udalak ardatz guztietan emaitza onak lortu ditu.

Legezkotasunaren esparruan Udalak lau alditan araua hautsi duen arren –hiru alditan langileria kontuetan eta behin kontratazioan–, oro har, legezkotasuna zuzentasunez bete duela uste du epaitegiak. Bestalde, Orioko Udalaren Kontu Orokorrekin alderdi esanguratsu guztietan kontuak ondo daramatzatela ere irizten dio epaitegiak.

Horrez gain, diru sarrerek gora egin zuten 2014an. Igoera horrek funtzionamendu gastuen igoera txikiagoarekin batera, autofinantzaketa maila hobetu egin da. 2014an aurrezki garbia sa-

rrera arrunten gainean % 11,7koa izan da. Azpimarratu behar da, gainera, zorpetzerik ez dagoela eta Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina esanguratsua dela, 5,8 milioi eurorena alegia.

Bukatzeko, aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua ere betetzen direla dio txostenak.

## Azterketa edonoren eskura

Horiek datu orokorrak dira, azalekoak. Udalak webgunean argitaratu ditu datu guztiak, beraz, gaiaren inguruan informazio zehatzagoa eskuratu nahi duenak PDF formatuan jaitsi dezake Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dako fiskalizazio txostena. Euskaraz nahiz gaztelaniaz dago irakurgai.

Deskargatu ahal izateko orrialde honetara jo behar da:

[http://www.orio.eus/images/stories/orio/PDF\\_orokorrak/ORIO\\_2014\\_prt.pdf](http://www.orio.eus/images/stories/orio/PDF_orokorrak/ORIO_2014_prt.pdf)



### EAJ Ondorioekin bat egiten

2014ko kontuen batzordeak egindako txostenetik, Orioko EAJ-ri bi atalek kezkatzen diote. Batetik, Udalak egindako kontratazio publikoen esleipenetan, hutsak egon dira. Oso kezkarria da huts horien dimentsioa, 2014ko aurrekontuaren portzentai handi bati, 2.1 milioi eurori eragiten bait diote.

Bestetik, kezkarriagoa iruditzen zaigu, aurreko legegaldian Diruzaintzan zegoen gerakin likidoa, bi urtetako epean, 2012tik 2014ra, %21an behera egin du. Honen ondorioz, Udalak herritar bakoitzeko aurreratutakoa 1.305 € izatetik 1.028 € izatera pasatu da.

Aurreko legegaldiaren kudeaketa txarra izan da Orioko herriarentzat eta honi guztiari buelta emateak erronka handia suposatuko du udal gobernu berriarentzat. Txostenaren arabera, lege haustek alde batera utzita eta azaleratutako salbuespenen eragina salbuetsita, kontuak zuzenak dira.



### Orain Gestio onaren pribatizazioa

Politikoen erakunde publikoen gestioa askotan zalantzan eta susmopean jarri denean eta 2014an oraindik krisi garaian geundela kontuan hartuta, esan daiteke Orioko Udaleko Fiskalizazio Txostena notarekin aprobatu dela -adibidez, aurrezki garbia sarrera arrunten gainean %11,7koa izan zen-.

Baina badago zuzendu eta hobetu beharrekoa eta bi dira nagusiak, aspalditik datozenak gainera. Bata konponduta dagoena (kaleak garbitzeko kontratua 2010ean amaitu zen eta publikotasun lehia urratuz jarraitu du gaur egun arte) eta bestea Udaltzeko lanen eta lanpostuen arteko lotura egokia.

2002ko urtarrilaren 29an Orioko Udaltzarrak Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa onartu zuen. Laster hamabost urte egingo dira, herria asko hazi da eta herritarren beharrak desberdinak eta dibertsifikatuak dira. Orain taldeak behin baino gehiagotan eskatu du programa berriro egitea.



### EH Bildu Aurreko legegaldiari buruzko bi iritzi

Herri kontuen Euskal Epategiak (HKEP) esan du aurrezki gordina eta garbia hobetu egin zirela 2011-2015 legegaldian. Diru sarrerek gora egiteak eta funtzionamendu gastuak jaisteak autofinantzaketa maila hobetu zuen. Zorpetzerik ez da egon EHBilduk kudeatutako legegaldian eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina esanguratsua dela adierazi du HKEPak: 5,8 milioi euro. Kontuen oinarriko hiru helburuak egoki bete zirela aipatzen du baita ere txostenak: aurrekontuaren egonkortasuna, zor publikoaren helburua eta gastu arauaren betetzea. Aurreko legegaldian, EAJk ordea bestelako mezuak zabaldu zituen herrian behin eta berriz prentsa bidez. EHBilduren gestioa txarra zela zioen. Hamarkada bat atzera egingo zela errepikatu zuen herritarrak aspertu arte. EAJk kezka handia adierazi zuen Udalaren diru-kontuak hondatzen ari zirelako. Argi dago EAJk zioena ez datorrela bat HKEPak txosten publiko batean dioenarekin. Norberak atera ditzala bere ondorioak.



### PSE-EE Hilabete honetan iritzirik ez

Hilabete honetan ezin izan dute iritzirik idatzi.

## Ingurumena

## Udal Elkarteak kudeatuko du eskualdeko zabor bilketa zerbitzua 2018tik aurrera



Abenduaren 1eko bilkuran, Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak zabor bilketa zerbitzua mankomunatzea onartu zuen aho batez. Udal Elkarteak hondakinak gaika biltzeko zerbitzuak kudeatzen ditu orain: papera, ontzi arinak, beira, bio-hondakina, arropa... Errefusa, ordea, udalerrri bakoitzean kudeatzen da. Akordio berriaren bitartez, 2018tik aurrera Udal Elkarteak jaso eta kudeatuko ditu Urola Kostako hondakin guztiak.

**Hiru multzotan**

Hiru adarretan banatuko da hondakinen bilketa: etxeko hondakinak, komertzioa eta ostalaritza eta, azkenik, enpresak.

Etxeko hondakinak bost edukiontzi bidez jasoko dira, orain arte bezala. Landa eremuan, zenbait gunetan errefusa edukiontziak daude orain. Sistema berriarekin guneak osatuko dira eta zabor bilketa zentralizatuko da gune horietan. Komertzio eta ostalaritzan, puntuz puntuko bilketa zerbitzua eskainiko zaie sortzaile handi eta ertainei eta sortzaile txikiek kaleko edukiontziak erabiliko dituzte. Industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira enpresen hondakinak

**Birziklatze tasa igotzea helburu**

Urola Kostako birziklatze tasa %40an dago orain. Bilketa sistema berriaren helburua gaikako bilketa tasa handitzea eta

errefusarena txikitzea da. 2018ko urtarri-laren 1ean jarriko da martxan eta lehenengo urtean %60ko birziklatze tasa lortzea da helburua. 2019an tasa hori %70era igo nahi dute, eta %75era 2020an.

**Azterketa tekniko**

Sistema berria egiteko, Udal Elkarteko Ingurumen Sailak azterketa teknikoa egin du. Azterketa Zuzendaritza Batzordean aurkeztu zen. Udal Elkarteko eta Aiako, Orioko, Getariako, Zarauzko eta Zumaia-ko teknikari eta politikariek landu zuten sistema berriaren proposamena. Abenduaren 1ean, Zuzendaritza Batzordeak aho batez onartu zuen akordioa.

## Kirola

## Irabaztetik irabaztera etorri da Gorka Aranberri Oriora

Bermeo utzi eta Oriora etorri da Gorka Aranberri. Urdaibaian tostakide zuen Bertzaiz Azkue ere etorri da berekin batera. Horrek eragina izan du bere erabakian, baita Jon Salsamendi entrenatzaile izateak ere. Argi dauka herritarren errespetua irabazita lortzen dela eta horretan ahaleginduko da, iazko maila hobetzen, eta, ahal bada, irabazten. Taldeak maila ona duela esan du eta taldeko giroa ere oso ona dela, oso herrikoia. Gainera, uretaratzean konfidantza gehiago lortuko dutela uste du, taldea gehiago sendotuko dela pentsatzen du. Orioko traineruaren gidaritza izateko gogotsu dago zarauztarra, urduri baina ilusio handiarekin.





## Gizartea

### Zaharren Babeslekuak Batzar Orokorra egingo du urtarrilaren 11n

Urtarrilaren 11n, asteazkenean, urteko batzarra egingo du Zaharren Babeslekuak. Kultur Etxeko arteto nagusian izango da batzarra, 16:30etik aurrera. Bigarren deialdia 17:00etan egin dute.

Bestalde, Babeslekuak bazkideei gogorarazi nahi die urtarrilaren 16tik 20ra bitartean kobratuko dutela 2017ko kuota. Arratsaldean ordaindu beharko da, 16:00etatik 18:00etara, hau da, astelehenetik ostiralera.

Babeslekuan bertan kobratuko dute kuota eta, ordaintzerakoan, bazkide agiria aurkeztu beharko da.

2016ko abenduaren 31 baino lehen 80 urte bete dituzten bazkideei ez zaie kuotarik kobratuko. Beste bazkide guztiek, berriz, kuota ordaindu beharko dute.

## Gizartea

### Txarri Txiki harategiak irabazi du txistorra onenaren txapela

Ordiziako Euskal Herriko XIX. Txistorra lehiaketako txapela, garaikurra eta diploma jaso ditu Aiako Txarri Txiki harategiak. Bigarren postuan Beasaingo Olano harategia sailkatu da eta hirugarren postuan Lasarteko Patxi Larrañaga. Bestalde, Orioko Kepa Loidi laugarren postuan sailkatu da.

## Gizartea

### Arrantza kuota erabaki dira

Europar Batasuneko arrantza ministroak akordio batera iritsi dira eta urtero harrapatu daitekeen arrantza kuota. Legatzarena %1,4 murrutu da, txitxarroarena %23ra jaitsi da, antxoarena maximo historikoetan dago, berdelarena %15era igo da eta hegaluzearenak egonkor jarraitzen du. Murrizketak Europako Batzordeak hasieran erabakitakoa baino positiboagoak izan dira.

## Gizartea

### Ainara Zamakola Grezian dabil lanean, errefuxiatuei laguntzen

*Pangea Solidaria* izeneko elkartearekin joan da Ainara Zamakola Greziara, Katsikasera, fisioterapeuta lanak egitera. Hainbat kanpamendutan dabil lanean, beraz, hara eta hona ibiltzea tokatzen zaio. Joan-etorri horiek egin ahal izateko ibilgailu baten beharra dute. Eta, ondorioz, itsulapikoekin diru bilketa jarri dute martxan Zamakolaren lagunek Aian eta Orion. Bi herrietako hainbat dendetan eta tabernetan daude itsulapikoak. Laguntzen dieten horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkie Zamacolak, beren ekarpenarekin autoa erosi ahal izango baitute.



## Gizartea

### Maiatzaren 7an egingo da herri galdeketa Orion

Abenduaren 13an, Urola Kostako aurkezpena egin zuen Gure Esku Dagok modelo aretoan. Ekitaldian azaldu zuten, zuzeneko bideo baten bidez, maiatzaren 7an egingo den herri galdeketa Orion eta eskualdeko beste 7 herritan: Zarautzen, Azkoitian, Zumaietan, Zestean, Getarian, Aizarnazabalen eta Errezilen. Galdera bera egingo dute zortzi herritan, eta honakoa izango da: *nahi al duzu izan euskal estatu burujabe bateko herritarra?* Ekitaldian herri bakoitzeko hainbat aurpegi ezagunek hartu zuten parte. Oriotik Xabier Lizaso, Mikel Orbañanos, Oihana Blanco, Idoia Etxeberria eta Ibon Gaztañazpi izan ziren. Aurretik sinadura bilketak egingo dituzte, hainbat datetan. Lehenengo bilketa abenduaren 16an egin zen eta bigarrena 18an. Hurrengo abenduaren 23an egingo da, ostiralarekin, Herribil emanaldiaren aurretik. Baita, abenduaren 24ean, eguberri egunean, eta 31n. Bi egun horietan eguerdian egingo da sinadura bilketa, 12:00etan, herriko plazan.

AGENDA

# Orio

## Gabonak

- Abenduak 23, Herribil dantza emanaldia, 22:00etan, Karela Kiroldegian.
- Abenduak 24, haurren kalez kaleko kantu-saioa, 10:45ean Ikastola ondoko plazatik hasita. 11:00etan, Tonbola plazan. 17:00etan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.
- Abenduak 26, The Upper Rooma taldearen Gospel kontzertua, 20:00etan, elizan.
- Abenduak 28, gabonetako haur parkea, 11:00etatik 13:30tara eta 16:30etik 19:30tara, Karela kiroldegian.
- Abenduak 29, abesti jantzi eta jaiotza lehiaketa, 17:30ean, Ikastolako pergolan. 18:30ean, Gaztaina jana, pergolan.
- Abenduak 30, Konposteroko Zirika Zirkus taldearen antzezlan, 17:30ean, kultur etxean. 19:00etan Urtezaharreko bertso erronda Unai Mendizabal eta Jon Maiarekin.
- Abenduak 31, San Silvestre lasterketa, 11:30ean, Ikastola aurretik abiatuta.
- Urtarrilak 5, erregeen karterua 11:00etan. 18:00etan erregeen kabalgata.

## Hitzaldiak

- Abenduaren 23an, Eneagrama, PNL, coach, mindfulness hitzaldia Aimar Martinezen eskutik, 19:30ean, Mandalararen elkartearen.
- Urtarrilaren 27an, 28an eta 29an, Bizi Unitatea hitzaldia Jorge Lomarren eskutik, Arraunetxean.

## AZOKA

### Alokairua

- Pisua alokatu nahi dut, gehienez bi logelakoa. Tf: 943249613
- Gela edo etxebizitza merkea alokatu nahi dut. Tf: 674811827

### Lan eskaintza

- Urdaira sagardotegian txotx denboraldirako lan-gile bila. Tf: 943372691 eta

619403691

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Disponibilitadea behar da. Tf: 677348103
- Salatxo tabernan zerbitzari bila gabiltza egunero lan egiteko. Esperientziaduna eta euskalduna. Tf: 608774954
- Bi neska txiki arratsal-

# Aia

## Gabonak

- Abenduaren 23an, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, 18:00etan.
- Abenduaren 24an, Gabon eskea, 9:00etan plazan baserritarrez jantzita. 17:00etan berriz ere plazan Gabon kantak abesteko.
- Abenduaren 26an, postre lehiaketa nerabeentzat, 16:30ean
- Abenduaren 28an, umeentzako tailerak frontoian, 16:00etan eta Konpost Eroak antzezlan 18:00etan eskola berriko aretoan.
- Abenduaren 29an, AIApin frontoian, 16:30etik 19:30era.
- Abenduaren 30ean, Euskal Selektzioaren partida ikustera irteera. Izen-ematea Kultur Etxean edo Gaztelekuan abenduaren 25 arte. Prezioa 25€.
- Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa, 17:00etan. Izen-ematea 16:30ean.
- Urtarrilaren 2an, futbol txapelketa irekia 16:30ean.
- Urtarrilaren 4an, dantzaldia eta euskarakea frontoian, 17:00etan erregeen laguntzailea etorri aurretik. Arratsaldean Txuri Urdinera irteera.
- Urtarrilaren 5ean, erregeen etorrera 19:00etan.

## Zine emanaldiak

- Abenduaren 27an eta 29an eta urtarrilaren 2an eta 7an zine emanaldiak Kultur Etxean. 16:30ean haurrentzat eta 18:00etan nerabeentzat.

deetan zaintzeko emakumea behar da. 35-50 urte, arduratsua eta euskalduna. Kotxea eta disponibiltatea. Udaran ere lan egin go du. Tf: 655729050

## Lan eskaera

- Asteburuetarako lan bila nabil. Helduen zaintzan zein garbiketara, paperak ditut. Tf: 663117579

## ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:05 eta 18:27	12:17 eta	
02	06:42 eta 19:06	00:28 eta 12:57	
03	07:23 eta 19:49	01:08 eta 13:40	
04	08:09 eta 20:40	01:54 eta 14:29	
05	9:04 eta 21:41	02:47 eta 15:26	
06	10:10 eta 22:53	03:49 eta 16:32	
07	11:25 eta	05:01 eta 17:43	
08	00:08 eta 12:40	06:15 eta 18:51	
09	01:17 eta 13:48	07:23 eta 19:53	
10	02:18 eta 14:46	08:24 eta 20:48	
11	03:12 eta 15:39	09:18 eta 21:39	
12	04:01 eta 16:27	10:08 eta 22:26	
13	04:47 eta 17:13	10:55 eta 23:11	
14	05:32 eta 17:57	11:40 eta 23:54	
15	06:15 eta 18:40	12:24 eta	
16	06:57 eta 19:22	00:37 eta 13:07	
17	07:40 eta 20:06	01:20 eta 13:51	
18	08:25 eta 20:53	02:05 eta 14:37	
19	09:13 eta 21:46	02:53 eta 15:27	
20	10:11 eta 22:50	03:48 eta 16:24	
21	11:20 eta	04:53 eta 17:29	
22	00:02 eta 12:32	06:04 eta 18:35	
23	01:08 eta 13:35	07:10 eta 19:34	
24	02:03 eta 14:26	08:05 eta 20:23	
25	02:48 eta 15:09	08:51 eta 21:06	
26	03:28 eta 15:48	09:32 eta 21:44	
27	04:04 eta 16:24	10:09 eta 22:21	
28	04:39 eta 16:59	10:45 eta 22:57	
29	05:13 eta 17:33	11:22 eta 23:33	
30	05:48 eta 18:09	11:59 eta	
31	06:25 eta 18:47	00:10 eta 12:37	

## ZAINTZAKO BOTIKAK

### URTARRILA

- 1ean, Iriarte
- 2an, Izpizua
- 3an, Zulaika
- 4ean, Iriarte
- 5ean, Larrañaga
- 6an, Esparza
- 7an eta 8an, Iturria
- 9an, Zulaika
- 10ean, Lasa
- 11n, Esparza
- 12an, Larrañaga
- 13an, G. Artiñano
- 14 eta 15ean, Etxeberria
- 16an eta 17an, Lasa
- 18an, Larrañaga
- 19an, Lasa
- 20an, Etxeberria
- 21ean eta 22an, Zulaika
- 23an, Esparza
- 24ean, Larrañaga
- 25ean, Zulaika
- 26an, Iriarte
- 27an, Lasa
- 28an eta 29an, Izpizua
- 30ean, Larrañaga
- 31n, Lasa

- **Izpizua:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz
- **Esparza:** Santuaiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz




# gurearen zaporea



*Eusko Labelak marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.*

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztiko, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.  
 Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.  
 Gureak ematen duen gozamina.



Abenduaren 24an

*Olentzero eta Mari Domingik*

ez ezik



guk ere

*opariak*

ditugu laguntzaileentzat

**EGUNA** ABENDUAK 24

**ORDUA** 11:00 - 13:30

**TOKIA** ORIOKO PLAZA



**Karkara**  
Kulturaren